

# ttipi-ttapa



FELIX LOIARTE

## HERRIAK BIZIRIK SEGI DEZAN

'Goizuetan lan eta bizi' dinamika abiatu du Udalak. / 4

# Elizako pederastia liburuan bildua

Miren Rubio kazetari lesakarrak eta Alberto Barandiaran eta Iñigo Astizek 'Ez duzu abusatuko' liburua argitaratu dute / 3

**Eskualdeko bertsolariak hilaren 24ko Bardoetako finalean** / 26



ZOKKETA / 52



UTZITAKO ARGAZKIA

**Basoen Nazioarteko Eguna ospatuko dute asteburuan Bertizen** / 25



ALICIA DEL CASTILLO

**Udaberriko Feria apirilaren 6an ospatuko dute Elizondon** / 34



ALICIA DEL CASTILLO

**Sarako Idazleen Biltzarraren 35. edizioa apirilaren 1ean eta 2an** / 38

# GATIBU

## + triki DANTZ



**SARRERAK:** 15€+gg/18€  
online: [gatibu.sarrerak.eus](http://gatibu.sarrerak.eus)  
[www.luraretoa.com](http://www.luraretoa.com)

**SALMENTA PUNTUAK:**

- ELIZONDO: Mendi & Intza
- DONEZTEBE: TITI ostatua
- BERA: Errekalde ostatua
- OIARTZUN: Laia taberna

#askeMB  
www.gatibu.eus



**ELIZONDO | LUR ARETOA**

**MARTXOAK 24** | Ate irekiera  
**LARUNBATA** | **22:30**

# Elizondoko Abesbatza Ttiki

# JOLASEAN

Josu Elberdinen musikala

Elizondoko Baztan Pilotalekua / Apirilak 21 / 20:30  
Sarrerak salgai Elizondoko Arkupe eta Malkorra gozotegietan 10 € eta 5 € (12 urte artekoak)





NIRE TXANDA

JON BARBERENA


## Miopeak

Gau intermitenteak iluntasunaren zati bat Gorkaren begi zuloetan utzita alde egin du. Kafea hurrupa batez edan eta denborarik galdu gabe, Mattini, semeari, arratseko xatarra aldatu dio. Geroxeago, biberioia eman, trabatutako korroka baten bat aterarazi, jantzi, etxea txukundu eta atzo eta herenegun bezala, parkerat joan dira gorgoinetan ibiltzerat. Anek, barrideak, lan

zama bera bizkareratzan du bere alabaren zaintzan, eta maiz, Gorkarekin partekatzen du parkeko egonaldia. Gizarteak definitutako eredu maskulinoa aldatzen ari da Gorka eta herritar anitzek famatzen dute bere erabakia. Herri ttipia izanik, laudorioak aditzen ditu nonahi eta mutiko feministatako dute. Anek, berriz, ez du antiojo moreak falta dituen gizarte miope honen alabantzarik sekula aditu. Emakume izanik, tokatzen zaiona egiten omen du. Bertzerik ez!

«EMAKUME IZANIK  
TOKATZEN ZAIONA  
EGITEN OMEN DU.  
BERTZERIK EZ!»

zama bera bizkareratzan du bere alabaren



EZPALA

AITOR AROTZENA

## Hitzetatik ekintzetara

Ergela izan behar da pentsatzeko munduaren erdia geldituta mundua ez dela geldituko. Hori bagenekien. Baina ikasi dugu ez dela aski laguntzea, bidelagun izan behar dugula; ez dela nahiko elkartasuna, elkarrekin bidea egin nahi dugula. Teorika ikasi dugu, praktika falta. Hitzetatik ekintzetara.

## NABARMENTZEKOAK




MIELTXO  
MINDEGIA  
AIZKOLARIA



SONIA  
LOPEZ  
LIBURUZAINA

Historiako apusturik parekatuena jokatu zuen martxoaren 11n Mieltxo Mindegia zubietarrak Luis Txapartegiren kontra. Sei segundo-ehunen gehiago baino ez zituen behar izan zubietarrak lanak akitzeko.

Joan den martxoaren leian, Sonia Lopez Igartuak 40 urte bete zituen Baztango liburuzain lanetan. Hori dela eta, ezusteko omenaldi hunkigarria eskaini zioten Elizondoko liburutegian.



ATZERA BEGIRA

2008-04-03 · TTIPI-TTAPA · 467 zk.

## Julen Zelaieta Nafarroako txapeldun

Nafarroako Bertsolari Txapelketako txapela jantzi zuen duela hamar urte Julen Zelaieta beratarrak eta ametsa betetzea lortu zuela azaldu zion Ttipi-Ttapari. Gai xeble eta serioetan asmatu zuen finalean: «umorera jotzen dudala erakutsia nuen eta hortan ongi moldatzen naizela. Nire hanka herrena gai serioetan nuen. Sorpresa eman bidenabar gaiak serio hartuz ere saiatu nahi nuen, eta finalerdietan ez, baina finalean lortu nuen». Horrez gain, «Nafarroako bertsolaritza ez dela bi izenetara bakarrik mugatzen» adierazi zuen: «25 parte-hartzaile ginen eta finalean zortzi sartu ginen arren, bertze sei ere sartzeko moduan ikusten nituen».

ttipi-ttapa

erran.  
Mendialdeko Albiestek

TOKIKOM

### Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31700 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

### Zuzendaria

Aitor Arotzena

### Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

### Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usoa Vicente

### Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,  
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Iruñe Elizagoien,  
Maider Petrirena, Markel Lizasoain,  
Fermin Etxekolonea, Fernando  
Etxeberria, Mattin Laralde, Juan  
Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga  
Erdozain, Maitane Maritorea,  
Aranxa Iturralde, Aranxa Gamio,  
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,  
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,  
Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Ixaso  
Arizmendi, Xabier Maritorea,  
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,  
Olatz Mutuberria.

### Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztexea

### Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

### Administrazioa

Amaia Goia

### Lege Gordailua

NA-1324/85

### ISSN

1578-4673

### Tirada

6.000 ale

### Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,  
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,  
Zugarramurdioko Akelarre elkartea

### 2018ko harpidetza sariak

|                                   |      |
|-----------------------------------|------|
| Baztan, Urdazubi<br>eta Malerreka | 36€  |
| Leitza                            | 22€  |
| Hego Euskal Herria                | 42€  |
| Ipar Euskal Herria, Europa        | 75€  |
| Amerika eta Australia             | 130€ |

Nafarroako  
Gobernua Gobierno  
de Navarra

mecna

Bortzietako Euskara

Mankomunitateak  
diruz lagundua



## KOLABORAZIOAK



AIALA ZUBIETA

## Kontsumorako bertze egun bat

Attaren eguna, hemen martxoaren 19an ospatzen dena, Vallecasen andereñoa zen Nely ezizenez ezagutzen den emakumeari zor diogu. 1948an, emakume honi eskolako umeen atta batzuk kexaka eta jeloskor joan zitzaizkion Amaren Eguna ospatzen baitzuten eta beraiek ere omenduak izan nahi zutela erranez. Andereño honek beraz, Aitaren Eguna ospatzea erabaki zuen, eta frankismoaren garaian hain errotuta zegoen katolizismoaren eraginez edo, San Jose eguna aproposena izanzen zela pentsatu zuen, Nazaretoko Jesus beraren aita lurterra, familia buru kristaua, eredugarria, umila eta langilea irudikatuz hain zuzen ere.

Gaurkoan hala ere, ez naiz hasiko ni besta honek duen jatorri heteropatriarkal eta katoliko honi buruz eztabaidan, honek luzerako eman dezake eta. Gaurkoan, Attaren Egunak, bertze egun anitzek bezala, hartutako bide kontsumista eta

### «ATTAREN EGUNA MERTATU ETA KONTSUMOAREN EGUN BAT DA»

komertzialari buruz ariko naiz, nahiz eta hagitx zaila izan den, ezinezkoa ez erratearren, kontsumoa eta heteropatriarkatua bereiztea. Goazen beraz besta honen jatorrira. Hasiera batean martxoaren 19a, atta omentzeko eguna zen,

berekin eguna pasa, norberak egindako eskulan bat oparitu... Baina argi dago, enpresariak egun hau beraien salmentak igotzeko aukera moduan ikusi zutela, eta egun Attaren Egunarekin, merkatu eta kontsumoaren egun bat ospatzen dela. Marketinak zuzeneko eragina du gugan, eta erabat manipulatzeko gaitu behar ez duguna erosteko eta bide batez gizarteko rolak markatzeko, eta gehiago nabarmentzen da horrelako egunak hurbiltzen diren heinean, helburua attari opari bat erostea baita, opari hori absurdoa bada ere. Eskaintza zabala izaten da, eta gizonezkoen afizioak, gustuak eta beraiek zein heroiak diren adierazten dituzten opariak eskaintzen dira orokorrean (bertze era bateko iragarkiak dira Amaren Eguneakoak): futbol partida baterako sarrerak, ardo botila bat, taladroa, superAita jartzen duen supermanen katilua edo egun hauetan oparitzen diren hainbat objektu absurdo.

Enpresek pisu handia dute kontsumismoan, baina ez gaitzen engaina, enpresa hauen sostengu geu gara eta anitzetan ez dugu pentsatzen erosten ditugun objektuak benetan beharrezkoak ote ditugun, hauen sortze prozesua nolakoa den, edo bere erabilera amaitzean (edo guk erabakitzen dugunean bukatu dela, nahiz eta oraindik bere funtzioa bete) nora joaten den, eta honek guztiak ingurumenean eta gizartean zein eragin duen. Beraz, izan gaitzen argiak eta saia gaitzen kontsumo arduratsu bat egiten.

USOA ZELAIETA LESAKAKO OSASUN ZENTROA

## Tuberkulosiaren Eguna

Tuberkulosia bakterio batek sortzen duen gaixotasuna da. Ohikoenak biriketetan sortzen dituen sintomak dira, nahiz eta gorputzeko beste ataletan ere eragin.

'Mycobacterium tuberculosis' bakterioa da eragilea.

Mikroorganismo hau pertsonaren barrenean modu latentean egon daiteke urteetan zehar, hau da, lo egonen balitz bezala. Kasu honetan ez dago sintomarik eta ez da kutsakorra.

Sintoma hauek izan daitezke: arnasa ongi hartzeko zaitasuna, eztula flemekin, batzuetan flemak doloekin, sukarra, izerdia gehienbat gauean, pisua galtzea, eta abar.

Gaur egun, mundu osoko biztanleriaren heren bat dago kutsaturik. Aldiz, horien %15a gutxi gorabehera gaixotuko da sintomak izateraino. Kasu hauetan, antibiotikoen konbinazio bat ematen da tratamendurako sei hilabetez, oro har.

Garapen bidean dauden herrialdeak dira intzidentzia eta

heriotza-tasa handienak dituztenak: Nigeria, India, Afrika hegoaldea, eta abar. Honi aurre egiteko Munduko Osasun Erakundeak programa bat jarri du martxan 'Fin a la TBC' deritzona. Programa honek 2030. urtera bitarte bi helburu nagusi ditu:

### «BIZTANLERIAREN HEREN BATEK TUBERKULOSIA DU»

%90ean hilkortasuna jaitxi eta %80ean intzidentzia jaitxi. Txertoa badago: 'BCG' txertoa. Nafarroako egutegian ez dago barneratuta, kasu berezietan bakarrik gomendatzen baita. Prebentzioa gaixotasuna pairatzen ari direnen aho tantak ekiditean datza, bai hitz egiten ari denean edota ez tulka ari direnean ere. Eskuak ongi garbitu, etxea ongi aireztatu. etxean bere gelan egotea gomendatu, maskarilla jarri behar denean...

Tuberkulosia diagnostikatu dioten pertsona batekin egon bazara, hurbileko kontaktua edukiz, edota lehen aipatutako sintomak edukiz gero, medikuarengana joatea izan litzateke egokiena. Hark hurrengo pausuak zein diren erabakiko lituzke, adibidez, 'mantoux' proba bat egitea osasun etxean bertan. Proba hau erizainak egiten du, besaurrean larruazal azpian txertatzen da produktu bat, zeinetan hiru egunetara bertan sortu den erreazioa irakurtzen den. Honek medikuaren hurrengo pausuak orientatzen ditu.

Oro har, gaixotasunak kutsatzea ekiditeko badaude eman behar diren oinarriko pausuak: eskuak ura eta xaboiarekin ongi garbitu, behatz tartek eta eskuen bi aldeak ongi igurtziz. Horrez gain, etxea ongi aireztatu, gaixorik dagoenaren toallak eta tresnak ez erabili, elikadura osasuntsu bat eraman frutak, barazkiak, zerealak, eta abar janez. Prebentzioa da gure esku dagoena.

## HEMEROTEKA



«Lan-bizitarako prestatzen ari naiz. Ikasi, irakurri eta prestatzen saiatzen ari naiz. Oraingoz, ez naiz lanean hasi. Gainerakoan, lasai nago eta nire ardurak betetzen ditut. (...) Haurren partidak ikustea gustatzen zait eta Labriteran joaten naiz. Hala ere, ez naiz Binakako Pilota Txapelketako partida bat bera ere ikustera joan. Telebistaren bitartez jarraitu dut txapelketa, baina hori bai, buru-belarri. (...) Pilotalekuan edo telebistan ikusi, sentsazioak aldatu egiten dira, baina niri ere materialak behera egin duela iruditzen zait, batez ere, Eibarko Astelena bezalako pilotalekuetan.»

**ABEL BARRIOLA**  
LEITZAKO PILOTARI OHIA  
D. VASCO. 2018.03.14

## 11 GALDERA LABUR

**KONTXI KLABER** ARANOKO EMAKUMEZKOA**Nola aurkeztuko zenuke zure burua?**

Herria eta natura asko maite dituen neska alaia eta ausarta naizela esango nuke.

**Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?**

Kirola egitea gustatzen zait, paseatzea, lagunartean egotea... Eta udan hondartza aldera joatea gustuko dut. Alde batera edo bestera, disfrutatzea gustatzen zait.

**Zer du Aranok beste herriek ez dutena?**

Hiritik hurbiltasuna dauka, itsasora begirako leihoarekin. Horrez gain, mendi buelta apartak egiteko aukera eskaintzen du.

**1920an 500 biztanle izatetik, 2017an 110 izatera pasatu da Arano. Zer sentitzen duzu hori entzutean?**

Pena handia ematen dit herri honetan hainbeste jende bizi izan dela eta orain hainbeste jaitsi dela ikusteak. Ez dezala behintzat bide horretatik jarraitu, ea mantentzen den horrela.

**Zein duzu Aranoko txokorik gustukoena?**

Gustuko leku asko ditut, baina horietako bat aipatzearen, Burningo zabala esango nuke, bere harizti ederrarekin. Hala ere, Burningo gaina ere izugarri gustatzen zait, bista izugarriak daudelako bertatik.

**Urte luzez Ttipi-Ttapan Aranoko berriemaile izana zara. Zein berri eman izanen zenuen gustura?**

Herrian frontoi estali bat lortu genuela idaztea gustatuko litzaidake. Horrek aukera izugarria emango lioke herriari edozer gauzatarako.

**Nola dabil San Roke elkarte?**

Jende aldetik, San Roke elkarte mantentzen da. Bajaratzuk egoten dira baina jende gehiago ere sartzen da eta nahiko ondo mantentzen da. Bestalde, herrian taberna bakarra dagoenez, elkarte laguntza handia da jendea bildu edo beste edozer gauzatarako.

**Nora bidaiatuko zenuke gustura?**

Argentina, Txile... Inguru horixe ezagutzea da nire helburua. Ez dakit lortuko dudana...

**Zein da asteburuetarako zure planik ederrena?**

Mendi buelta bat egin eta lagunartean bazkaritxo bat egitea.

**Zer behar duzu zoriontsu izateko?**

Gehienetan, gutxiarekin zoriontsua naiz, nahiz eta batzuetan asko eskatzen dudana... Batez ere, lasaitasuna behar dut zoriontsu izateko, erlojurik gabe ibiltzea.

**Amets bat?**

Nire ametsa bidaiatzea da, beste lurralde batzuetara joan eta hango kultura eta bizimoduak ezagutzea gustatuko litzaidake.

## GORA ETA BEHERA



IBON ERRAZU

**Maika Ariztegi urrezko txapeldun**

Nahiz eta sasoirik hoberena pasatua duela uste zuen, Emakumeen Banakako Urrezko Aizkorako Txapelketa irabazi zuen iturendarrak joan den martxoaren 4an.

Sunbilla · Tel: 948 450 862

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA  
GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK  
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

**2. eskuko bizikletak**

Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 631 218  
joxemi@kateabike.com  
[www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)

ORBEA CONDA SCOTT BH TREK MERIDA



## IRAKURLEAK MINTZO

**Borreroak baditu milaka aurpegi**

**EKAITZ ASTIBIA GOIKOETXEA**  
LEITZALDEAKO ISUNDUEN IZENEAN

Euskal Herriko memoria kolektiboan ongi iltzatuta zegoen sinesmen hau Negu Gorriak taldeak 1993an doinu jarri zionerako, tamalez, iltzatuegia. Urte luzetan jasandako injustiziek ondorio horretara eramane zuten jendartea eta gaur, bi hamarkada baino gehiago igaro diren hontan, inoiz baino biziago dago, inoiz baino maskara gehiago ditu eta gainera, makillajerako bitarteko kontaezinak.

Eginkizun bakarra dute militar botekin geure herria zapaltzen dutenek: Euskal Herriaren kontzeptua deusezte eta berau asimilatzea, parean zein edo zer dagoenari jaramonik egin gabe. Nork egingo die aurre borreroaren mila aurpegi? Maskara guztiak elkarrekin lanean, harmonian aritzen dira, helburu bakarraren atzetik. Hala gertatu zen Altsasuko istilua, makineriaren pieza guztiak elkarlanean jardun zutenean eta ondorioa agerikoa bezain larria da: hiru gazte espetxean eta beste hainbat epaiketaren zain, herri oso bat kriminalizatua eta jomugan. Guardia zibilak istilua piztu, komunikabideek distortsionatu, agintariak euren indar armatuaren alde agertu eta epaileak interes konkretuen morroitzan jardun. Zenbatgarren muntaia dugu gurean?

Ez litzateke harriztekoa izango Altsasuko kasua Euskal Herriko beste edozein herritan gertatu izan balitz, adibidez gurean. Denok dauzkagu oroimenean urteetan gertaturikoak: mozkorturiko guardia zibilek pistola

buruan jarri ziotenekoa leitzar bati, kontrol batean jo gintuztenekoa, kalean jazartu, atentatua simulatu zutenekoa, isunekin itotzen saiatu direnekoa...

Hala ere, suertatzen dira momentuak zeinetan etsaiak ez duen ongi kalkulatu kontrara etor dakiokena, eta herri honek erantzuteko eta bere burua babesteko duen gaitasuna gutxien dituen. Izan isunei modu kolektiboan eta auzolanean erantzun genienekoa, edota Maxurrenea herriari itzultzeko antolatutako borondate olatua; erasoei irudimenez, ilusioz, elkartasunez eta antolakuntzaz erantzun izan diegu, eta erantzungo diegu. Amestu eta bizi nahi duen herri baten gaintetik ez da inongo ejertzikorik pasako. Azken aldian, Altsasuko defentsan dauzkagu zitak. Martxoaren 10ean gure eskualdetik igaro zen elkartasun karabana eta hurrengo hitzordua apirilaren 14an Iruñean egingo den manifestazioa izango da. Altsasuko gure auzia ere badelako, kalera ateratzeko unea da! Alde egingo duzuen eguna ospatuko dugu, borreroak eraitsiko ditugun eguna gertu dago!

Altsasukoak aske! Ez Leitza eta ez inon ere, indar okupatzaileak kanpora!

**Donamaria, Gaztelu, Oiz, Urroz, Beintza-Labaien eta Saldiasoko pazientei eskertza**

**MANU PEREZ**

DONEZTEBEKO OSASUN ZENTROKO MEDIKU IZANA

Donamaria, Gaztelu, Oiz, Urroz, Beintza-Labaien eta Saldiasoko nire pazientei eskerrak eman nahi dizkiet, azken hamar urteotan beraien mediku izanda maitasun haundiz hartu nautelako. Tokiz aldatzeko erabakia hartzea zaila izan da, ahaztea zaila izanen den arrastoa utzi didaten jendea ezagutu eta lan egiteko aukera izan dudalako. Pena handiarekin noa, baina hamar urtez pertsona berekin lanean aritu ondok, uste dut aldaketa denontzat ona izanen dela, bai medikuarentzat eta bai pazienteentzat ere. Barkamena eskatu nahi dizuet nozbait uste zenuten bezala tratatu ez bazaituztet, edo diagnostikoarekin asmatu ez badut. Ez dut sekula asmo txarrez egin. Zuetako bakoitza agurtzea gustatuko litzaidake, baina hala egin izan banu, ez nioke negar egiteari utziko, horixe baita hitz hauek idazterakoan egiten ari naizena. Beti eskertuko dizuet. Hagitz kontent sentitu naiz.

Osasun zentroan lankide izan ditudanei ere eskerrak eman nahi nizkieke, hamar urteotan eman didaten tratatuagatik. Herritarrek jakin behar dute profesionaltasun eta gaitasun humano haundiko talde batek artatzen dituztela.

Musu haundi bat guztioi, eta bereziki, Nerea eta Leireri. Mila esker!

**IRAKURLEAK MINTZO**

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus

948 63 54 58

**ZAINDU MAITE DUZUN HORI...  
ZURE ETXEBIZITZA  
VUELVE A ENAMORARTE...  
DE TU VIVIENDA**

25 urte gorako  
etxebizitzen zaharberritzea  
**Rehabilitación viviendas  
de más de 25 años**

**Orain laguntza +  
%60 arteko dirulaguntzak  
Ahora + ayudas  
Subvenciones de hasta el 60%**

Informazioa eskatu **Infórmate**

**orve**

Oficina de  
rehabilitación  
de viviendas  
y edificios

C/ Elbarren 1, bajo. Leitza  
C/ Mercaderes, 6. Doneztebe

**948 012 012**

[www.etxebizitza.nafarroa.eus](http://www.etxebizitza.nafarroa.eus)  
[www.vivienda.navarra.es](http://www.vivienda.navarra.es)



**Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra**

## «Jakin dugun gutti honek gibelean gehiago dagoela erakutsi digu»

MIREN RUBIO 'EZ DUZU ABUSATUKO' LIBURUAREN EGILEETAKO BAT

Euskal Herriko elizan izandako pederastia kasuei buruzko liburua argitaratu du Miren Rubio lesakarrak Alberto Barandiaran eta Iñigo Astizekin batera.

### G. PIKABEA LESAKA

Kasua ez da berria. Lehen ere aditu izan dira holako eskoletan... halako apaizak... Baina hautsak sobera harrotu gabe, isilean mantendu izan dira, zerbait lotsagarria balitz bezala. Orain, ordea, «gauzak errateko eta gertaerei bere izenez deitzeko garaia ailegatu dela» iritzita, Euskal Herriko elizaren barrenean izandako pederastia kasuen inguruan, liburua argitaratu dute Miren Rubio (Lesaka, 1985), Alberto Barandiaran (Altsasu, 1964) eta Iñigo Astizek (Iruñea, 1985). Eskarmentu haundiko hiru kazetariren erreportaje zabala da 'Ez duzu abusatuko' eta 50 bat elkarrizketa eta dokumentazio lan handia eginez osatu dute. Euskal Herrian liburu batean gai hau landu den lehenbiziko aldia da.

### Nolatan hasi zineten kontu honekin?

Lan honen pizgarria 'Spotlight' pelikula izan zen. Alberto Barandiaranek ikusi, eta Irungo La Salleko eskolan bizitakoa etorri zitzaion burura. Bera ere abusua jasateko zorian izan baitzen. Berria egunkarian argitaratu zuen honen inguruko artikulua, dezenteko sona izan zuena, eta bertze hainbertze hari-mutur suertatu zitzaizkion. Horrela hasi ginen hirurak solasean, hari-mutur horiei tiraka. Baina, batez ere gure buruari galdetu genion ea han pasatutakoa hemen ere pasatu ote zen, eta batez

ere, hala bazen, nola izan den posible hainbertze urtez isiltasun zama hori mantentzea, kasik zirrikiturik gabe. Hori burutan hasi ginen lanean.

### Ahots aunitz bildu dituzue eta denetariko jendea elkarrizketatu duzue. Azalduko zeniguke?

Gure helburua ez dalekukotzak jasotzea bakarrik izan, testuingurua bera ere ulertzen saiatu gara. Horretarako, adibidez, elizaren iritzia jaso dugu, tartean, Jose Ignazio Munilla Donostiako gotzainak eskaini digu gai honen inguruan lehenbiziko aldiz eman duen elkarrizketa; edota fiskal, psikologo, soziologo, kanonista, senide eta bertze hainbertze aditu eta gertukoei ere ahotsa eman nahi izan diegu. Gainera, gai honen inguruan hemen eta nazioartean egon diren aldaketak jasotzea inportantea iruditu zaigu. Horregatik, ikuspegi guztiak elkartzeko, 50 elkarrizketa egin behar izan ditugu, eta bertze hainbeste irakurketa eta dokumentazio lan.

### Zein helbururekin argitaratu duzue liburua?

Ate bat zabaltzea izan da gure intentzioa. Leiho ttiki bat. Bertze hainbat lekutan ikusten

«BERTZE LEKUETAN EZ BEZALA, GUREAN GAIKAZ EZ DA SOLASTU»

genuelako gai hauen inguruan franko solasten zela, ikertzen zela, baina gurean, aldiz, leiho horrek itxita segitzen zuela. Belarria paratzea falta zen, liburuan erraten dugunez. Beraz, kazetari bezala, gizar-tearekiko dugun zereginagatik, belarri hori paratzen saiatu gara, eta adituz, urte hauetan guztietan izan den isiltasun hori posible egin duten mekanismoak ulertzen. Hori izan da helburua.

### Nolako eta noizko kasuak dira liburuan bildu dituzuenak?

Guk jaso ditugun kasurik zaharrenak 60ko hamarkadakoak dira. Abusurik hurbilekoena, aldiz, Leioako Gazteluetako eskolakoa da, oraintxe epaiketako bidean dena. Hortaz, kasuak ere denetarikoak dira. Aunitz eskoletan gertatutakoak dira, bertze batzuk Miserikordia Etxeetan, auzoko parrokian, boy scout-eko udalekuetan... Abusuen arloan ez baitago kasuistika itxi bat, ezta abusatzailearen perfil zehatz bat ere.

### Nola ikusi dituzu biktimak?

Bakoitzak bere moduak eta minak ditu, bistan denez. Denak bezala. Eta gainera, kontutan izan behar da kontatze-

ko prest zeuden biktimekin solastu garena. Batzuegana galdetzeraz joan gara, baina ez zen momentua eurentzat. Beraz, solasteko prest zeudenekin izandako harremanaz solasten ahal gara. Eta bertzeak bertze, kontatzeko gogoz sumatu ditugu. Urte hauetan guztietan korapilo hori ezin askatu egon direlako, eta gizar-tearen babesaren faltan. Hori hunkigarria izan da guretzako, izugarritzako eskuabaltasuna, ausardia eta batez ere, konpromisoa erakutsi digutelako. Sarri, euren larruan egon diren pertsonak laguntzea izan delako kontatzearen arrazoi nagusietako bat.

### Ikerketa honekin, ate bat ireki duzuela aipatu izan duzue, lan hau icebergaren punta dela, baina oraindik ere lan aunitz dagoela egiteko. Azaldu...

Gure intentzioa ez baita izan abusuen argazki zehatz bat osatzea. Hasteko, elizak bere artxiboetan pederastiaren inguruko datuak izan arren, sekretupekoak direlako. Beraz, datu orokorrik gabe abiatu dugu ikerketa. Horregatik erraten dugu atea zabaltzearena. Eta zoritxarrez, jakin dugun



### Ez duzu abusatuko

Pederastia kasuak Euskal Herriko elizan.

- **Egileak:** Miren Rubio, Alberto Barandiaran eta Iñigo Astiz.
- **Argitaletxea:** Elkar.
- **Orrialde kopurua:** 224.





Miren Rubio Iesakarra 'Ez duzu abusatuko' liburua eskuetan duela. UTZITAKO ARGAZKIA

gutti honek erakutsi digu gibelean hagitzez gehiago dagoela. Oraindik ez dakiguna hagitzez gehiago dela. Eta arrasto hori da liburu honek erakusten duena.

**Gaia delikatua da. Nola sentituzara liburu hau egiterakoan?**

Jendearen minarekin ari zarenean, ezinbertzean ematen dizu zuri min. Oraindik gehiago biktimak haurrak izan dira ikusten duzunean. Baina biktima horiek eta eliza barruko jende aunitzek eta lekukoek ere errepikatzen zigiten: «hau kontatu behar da», «zuek kontatu». Guk ere uste dugu kazetaritzaren eginbeharra hori dela. Horregatik, gaia hagit gogorra egin bazaigu ere, saiatu gara umiltasunez eta errespetu osoz egin behar hori betetzen.

**Eragozpenik izan duzue informazioa biltzeko?**

Bai. Alde batetik, auzi haue-tako informazioa ezkutupekoa delako gurean, erran bezala. Elizak ez du daturik ematen,

ez baitago legez horretara derigor-tuta, ez bada kasu zehatz-mehatz batzuetan epailearen eskariz. Eta bere kabuz ez du horretarako borondaterik erakutsi. Bertzetik, oraindik ere isiltasun ikaragarria dago gai honen inguruan, eta gutti dira salatza ausartzen direnak. Gizarte zibilak ere ez du ikerketarik bideratu hemen, edo parekorik. Beraz, oraindik ere ahoz ahokoaren bidez iristen den informazioa izan da eskuratzeko joan garena, eta horri tiraka joan behar izan dugu lana osatzen, ate aunitz jotzen. Batzuetan zabaldu dira eta bertze aunitzetan ez.

**Zein da liburu hau argitaratu ondotik atera duzun ondorio nagusia?**

**«BIKTIMAREN GAIN SEGITZEN DU SALAKETA EGITEKO ARDURAK»**

Elizak berak erran izan du abusuen aitzinean gaizki eta berandu aritu dela. Apaiz abusatzaileak ez dituelako sarri hurrengandik urrundu, lekuz aldatu baizik. Fededunen konfiantzaz aprobetxatu eta seme-alabak arriskuan paratu ditu. Gainera, abusuen aitzinean, Aita Sainduak berak «zero tolerantzia» aldarrikatu izan badu ere, Euskal Herriko elizak ez du prebentzio neuririk hartu, ezta Irlandan bezala, adibidez, ikerketa komisiorik abiatu ere. Ondorioz, biktimaren gain segitzen du abusuak salatzearen ardura. Berak eman behar du lehenbiziko pausua eta biktima ez dago beti psikologikoki prest horrek suposatzen duen guziari aitzin

**«FEDEDUN IZAN ALA EZ, DENONA DA ERANTZUKIZUNA»**

egiteko. Hori ere aldatu behar du bai elizak bai eta gizarte zibilak ere. Denona baita erantzukizuna.

**Nolako erantzuna izaten ari da liburu?**

Pozgarria bezain mingarria izaten ari da. Liburu argitaratu bezain agudo, bertze kasu aunitz kontatzen hasi zitzaizkigun, senideren bati pasatutakoa edo eurei. Hor ere ikusten duzu nolako tamaina izaten ahal duen abusuen argazki orokor horrek. Zer behar duen jendeak, biktimak. Eta hori ere bada pozgarria, jende aunitzek lehenbiziko pausu hori emateko gogoia sentitzen delako liburuaren harira. Bakarrik ez daudela sentitzen dutelako, eta sines-tzen diezulako. Denok egin beharko genuke hori; fededun eta ez fededun izan, abusua jasan duten pertsonen gure babes guzia erakutsi beharko genieke. Horretan bulkada tiki bat baldin bada liburu, gu kontent.



Jardunaldien bidez «herritar guztiengan, eta bereziki, gazteengan» eragin nahi dute. UTZITAKO ARGAZKIA

## Goizueta: herri txiki, erronka handi

Herritar kopuruaren gainbehera eta biztanleriaren lanarekiko kezka tarteko, Udalak, Cederna-Garalur elkartearekin elkarlanean, 'Goizuetan lan eta bizi' dinamika abiatu du.

### NEREA BAZTERRIKA GOIZUETA

'Etxean jan, kanpoan lan' atso-titzari aurre hartuz, Goizueta herritarren etxe eta lantoki izateko, 'Goizuetan lan eta bizi' dinamika abiatu dute. Ez da erronka makala, bai beharrezkoa. Lujanbio zinegotzi eta dinamikaren arduradunaren hitzetan, «alde batetik, jaiotza-tasa asko jaitsi da; eta bestalde, lana dela eta, herritarrek kanpora joan dira...».

### ETXEBIZITZA BATZORDEA

'Goizuetan lan eta bizi' dinamika herriko Etxebizitza

Batzordeak eginiko inkesta-emaizten sakoneko irakurketan ditu erroak. Izan ere, Goizueta «biztanleria beherakada jasaten ari zenez», 2016an, Udalak Etxebizitza Batzordea sortu zuen. Horrek, «Goizuetako etorkizunari buruzko beharrak» jasotzea helburu, biztanleriari «inkesta bat» betearazi zion. Inkestan, etxebizitza alorra ez ezik, lan, errepide eta zerbitzuei buruzko kontuak jorratu zituzten.

### LANAREKIKO KEZKA

Hortik eratorritako emaitzak herriko lan faltak eragindako

kezkaren adierazle argiak izaki, Udalak gabeziari erantzuteko eta herritarrek beraien negozioak sortzera animatzeko prozesua abiatu zuen. Horrela bada, Goizuetako Udala 2017ko irailean Cederna-Garalurrekin harremanetan jarri eta inkestetako emaitzak helarazi zizkien: «biztanleriaren %86ak erantzun zuen inkesta eta horietatik %24,8ak lanaren inguruko kezka islatu zuen». 2017ko azaroan, Udalak eta Cederna-Garalurrek, elkarlanean, 'Goizuetan lan eta bizi dinamika' sortu zuten. Besteen lana ikusiz eta ikasiz eman dituzte lehendabiziko urratsak: «haiek sortu dituzten negozio edo proiektuei erreparatu diegu». Esperientziak mahairatu eta «kontatutakotik edanez», herriak eskaini ditzakeen aukerak ahal bezainbeste ustiatu nahi dituzte.

### BIZIRAUPENA JOMUGA

Herritar askok «lana bizilekuarekin lotzen dute». Aitzitik,


«guk lanak bizitokia baldintzatu beharrean, bizi nahi duzun tokia zeinahi dela ere, horri eutsi eta bertan lana sortzea» eragin nahi dugu. Askok «pentsaera arrotza» dela uste dute; baina Euskal Herrian bertan «errotzen ari den joera da» eta «esperientziek bidea hori dela eta zilegi dela erakusten dute». Herri txikien iraupena bermatu nahi izatekotan, «aldaketa beharrezkoa da: norberak bereari ekitean dago gako».

### JARDUNALDIAK

Hori guztia herritarrei helarazteko jardunaldiak antolatzen ari dira. Dagoeneko bi egin dituzte. Lehendabizikoan herritar baten esperientzia, Elizalderena, eta Basaburuko Ernaizu kooperatibakoa bildu zituzten. Bigarrenean, berriz, Goizuetan bizi den Sanchez eta Sestorain leitzarria izan ziren hizlari. «Lehendabiziko pertsona» entzuteko, nahi zutena galdetzeko... aukera izan zuten. Gertuko informazioa jasotzeak, «eta bihotzez sentituz eta biziz, egiten dutenean sinistuz» kontatzeak, «interes handia» sorrarazi du. Orain, «etorkizunari buruzko kezka badagoela jakinda, gazte gehiago hurbiltzea» nahi dute. Horrekin batera, 2018rako Udalak «autoenplegura bideraturiko 2.000 euroko aurrekontua» aurrekusi eta «tankera bertsuko jardunaldiekin» jarraituko dute, «gehiagorengana iristeko».

## «Herriko bizia eta zerbitzu-eskaintza ikusita, etorkizuna kinka larrian dago»

Datuek islatzen dutenez, 1996tik 2017ra bitarte Goizuetak biztanleria beherakada nabaria jasan du. Itsaso Lujanbioren arabera, beherakada honela azal liteke: «jaiotza-tasak jaistearekin batera, herritar askok, lana tarteko, kanpora joateko erabakia hartzen dute». Areago, «egun, oraindik orain, oinarriko zerbitzuak eta bestelakoak mantenduagatik, azken urteetan taberna asko itxi dituzte». Hori horrela, eta herriko bizia eta zerbitzu-eskaintza elkarloturiko alorrak direla aintzat hartuz, datuek, etorkizunera begira, «ez dute argi handirik islatzen».



Biztanleria datuen bilakaera: 1996-2017. Datu-iturria: NEE udal errolda.

## «Gizarteko pentsaera faltsua da»

**JUANJO ELIZALDE** EHNE-KO KIDEA

Fabrikako lanera egokitze-ko modurik ez eta «ordu luzeak labor» bilakatu zituen Elizalde «gertutik bizitako bizimoduan sartuz». Baserrian sortu izanak eta «betizuen atzetik izerdia ateratzeko gogoak» bultzatu zuen «naturarekin bat egitera». Egun, ordu asko pasatzen ditu azienda artean «baina pixkanaka denbora eta lana kudeatzen ikastea dagokigu, esparru guztiei tarte egiteko». Hasiera guztiei berezko zaienez, «lehendabiziko pausoak nekezak izan ziren». Bereziki «jendeak baserri- bidez bizitzea ezinezkoa zela esateak» zama areagotzen zuen. Lehen urratsak fabrikako lanarekin uztartuz eman zituen: «urtero betizu batzuk erosi nituen, eta dezente erositakoan fabrika utzi nuen». Duela bost urte, betizuek gain, «oiloak jarri nituen eta azkenaldian betizu batzuk kendu eta behorrekini hasi gara». Egia esan «arrautzak eta haragia preziatuak izanagatik, bereziki arrautzak erosten ditu jendeak». Sakondu ahala, «gizartean errotuta dagoen izaera hori faltsua dela ikusi dut, pertsonon gaitasunak itzali eta norberak bere buruan sinistea zailtzen duena». Lehenengo urratsa eman bezala, «familiakoek eskutik heldu didate, eta proiektu hau zerbait bada guztiok ereindako haziaren uzta da». Areago, «egun baserri txiki- tarako dagoen legedia zurrun hori betetzeko, baimenak lortzeko, burokraziari aurre egiteko... herriko erakunde- tarako jarrera eraikitzaileak asko balio du». Esku artean dugun dinamika «bizilagunen loturak eraikiz, herria berpizteko» baliagarria da.



UTZITAKO ARGAZKIA

## «Gu gai bagara gazteak ere gai dira»

**MAITE SANCHEZ** GOIZUETAN BIZI DEN ABELTZAINA

Txikitatik «baserriarekiko» izan duen «miresmena» bere egin du Sanchezek. Hasieran «zaldiak hezten» hasi zen, «baina horrek ez zidan bizitza aurrera ateratzeko bide eman». Hori horrela, ahuntzak paratu zituen: «gaztak egiteko asmotan». 2007an, berriz, «betizuekin hasi nintzen eta hortan dihardut». Kanpoan lan egin bitartean irabazitakoa horretan inbertituz ibili zen urte batzuz. Lana uztea erabaki zaila izan zen, baina «haurrak izateak ere baldintzatu egiten zidan, lana bertatik bertara izatea komeni zitzaidan». Bakarrik egin zuen aurrera, baina ezin esan urrats irmoak eman ez dituenik: «gaur egun 90 buru ditut». Lana «gogorra» da, «hotza, elurra... eginagatik, egunero joan behar da». Nekea, ordea, «ez da baloratzen, hazkuntza estentsiboaren balioa lurra irensten du, guztia intentsibora bideratzen da, bost urte diru-laguntzarik kobratu gabe egon nintzen». Gobernuak diru-laguntzak horiei bideratzeak «ekoizle eta kontsumitzaileen arteko zubia urratzen du, harremana eta produktuen eskuragarritasuna zailduz». Emakume izateak ere, «zailtasun sozialak dakartzatza, baina, batasunez, emakume abeltzainen elkarte-ko kide eginez, gainditu ditut». Handik eta hemendik saiatu da, «taberna ere hartu genuen». Baina, «osasun arazoak» zirela eta, «ez zitzaigun espero bezala ateratu». Halere, «egun, bai ni, baita nire bi semeak ere, abeltzantzatik bizi gara». Gazteek «beraien gaitasunak azaleratu behar litzuketela uste dut, gu gai bagara haiek ere gai direlako».



UTZITAKO ARGAZKIA

## «Administrazioek ez dute txikienganako sentsibilitaterik»

**GOTZONE SESTORAIN** LETZAKO GAZTAGILEA

«Baserri-jakinduria aberatsari eusten dion» familiako alaba da Sestorain. Egun familiaren jarduera-nagusia artzaintza izanagatik, belaunaldiz belaunaldi, aldaketak nabarmenak izan dira. Izan ere, «duela 50 urtera arte baserriak dibertsifikatuak ziren, esne-behi, txekor, ardiak, untxi, oilo... gutxi batzuk izatea ohikoa zen orduan, apaltasunez baina duintasunez bizitzeko adina». Europako merkatu bateratuan sartzeak «ikuspegi produktibista gai-



UTZITAKO ARGAZKIA

lentea» eragin zuen. Ondorioz, «batzuek baserriko jarduera utzi zuten eta besteak espezializaziora jo genuen». Aldaketa nabarmenena «anaiak,

amarekin, baserrian gelditzea erabaki zuenean gertatu zen. Izan ere, gazta gehiago egiteari ekin zioten». Horrela, duela bi urte, «amaren osasun arazoak» zirela eta, etxekoek elkarlanerako proposamena egin zidatenean, amari lekukoa hartu zion: «orduan lana utzi eta agroekologiako ikastaro bat egiten ari nintzen». Egun, «ardi-esnea, patata, patxarina... ere saltzen dugu, bereziki etxetik eta herriko azokan, baina baita inguruko denda eta azoka berezietan ere».

Bien bitartean, «Europako lege aldaketa kaltegarrien ondorioak eta hemengo adminis- trazioek eginiko interpretazio estuek jarritako oztopoak» gainditu dituzte. Azken urteetan «jasangarritasun irizpideei produktibismoaren eta neoliberalismoaren irizpideak gainjartzeak ez du zama arindu». Txikien etorkizuna bermatzeko, «indarrak kontrako norabidean zuzendu behar dira». Dinamika hau bada «kontzientzian eragiteko abiapuntua». Finean, «zer lehene- tsi nahi dugu: zorientasun eta ingurune osasuntsua edo kontsumismoaren gurpil-zo- roan murgiltzea?».

## Bestetako programaren azala lehiaketara atera da

Lanak ekainaren 1a bitarte aurkez daitezke eta 400 euroko sari bakarra izanen da irabazlearentzat

### TTIPI-TTAPA

Bestak prestatzen hasiak dira eta bestetako egitarauaren azalerako lehiaketaren deialdia zabaldu du Kultur Batzordeak. Lanak ekainaren 1eko 13:30 baino lehenagotik aurkeztu beharko dira udal bulegoetan, gisa honetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz. Sari bakarra izanen da, 400 eurokoa, baina saria hutsik ere gelditzen ahal izanen da.

Nahi duen guzikiak parte hartu ahal izanen du lehiaketan, eta nahi bertze lan aurkeztuz. Azalak Berako besta giroa islatu beharko du. Azalean 'Berako Bestak 2018' testua agertu beharko da nahitaez eta ez du bertzelako testurik eramanen. Gaia, estiloa eta erabilitako teknika libre izanen da, betiere besta giroa islatzen badu. Lanek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute, ezin dira izan bertze lehiaketetan aurkeztutakoak... Gainera, genero irudikapenean erabilitako irudiek oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu



Bestetako danborrada. TTIPI-TTAPA

gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren arloan ezberdintasunen tratamendu gutiesgarria saihestuz.

Formatuari dagokionez, argazkia edo irudiak kolorezkoak izanen dira, ez da diapositibarik onartuko, paperean aurkeztuko da, eta bertikala izanen da, 18x27 cm-koa. Euskarri gogor batean aurkeztu beharko dira eta modu egokian paketatuak.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Haur Kantari Jaialdiko lehen saioa

Ehun haur eta gaztetxo baino gehiago elkartu ziren joan den martxoaren 3an Kultur Etxean, Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdiko lehenbiziko saioan. Lesakako Tantirumairu Ikastola, Sunbillako eskola, Baztan Ikastola eta Mendaur Trikitixa Eskolako ikasleek parte hartu zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Bardoak finaletik kanpo gelditu dira

Lan bikaina egin dute 'Ibardin: hiru ta lau dira zazpi' taldean bildutako herriko bertsolariek Bardoak ekimenean. Finalaurrekoetan 'Aldatzea komeni' taldea izan zuten bertsolagun eta Katakua ostatuan nahiz Leitzako Gaztetxean (argazkian) egindako saioetan nagusi izan ziren leitzarrak.



**ANSONEÑA**  
OSTATUA

LARUNBATEAN  
**MARTXOAK 24**  
IREKIKO DUGU

T. 642 03 46 53

GOIZEKO 7:00ETATIK  
AITZINERA IREKIA

- Gosariak
- Hamaiketakoak
- Plater konbinatuak
- Karta
- Bokatak
- Pintxoak
- Errazioak
- Etxean egindako postre aukera zabala
- Pizzak

ETXERA ERAMATEKO JANARIA PRESTATZEN DUGU

*bataio, jaunartze, ezkontzak...*

HOSTALA ERE MARTXAN | 6 logela



Mende erdi honetako argazkiak ikusgai jarriko dituzte asteburuetan. TOKI ONA

## 50. urteurrena ospatzen hasiak dira Toki Ona Institutuan

Maiatzaren 19ko egun nagusiaren aitzinetik, argazki eta ikasleen lanen erakusketak eta mahai-inguruak izanen dituzte

### TTIPI-TTAPA

Toki Ona institutua 50. urteurrena ospatzen ari da 2017-2018 ikasturte honetan. Egun nagusia maiatzaren 19an izanen bada ere, aitzinetik hainbat ekitaldi egiten hasiak dira. Ortzirale eta larunbatetan, argazki eta ikasleen lanen erakusketarekin hasiak dira Kultur Etxean (hurrengoak, martxoaren 23-24an eta apirilaren 13-14an eta 20-21ean).

Martxoaren 16an, Beralandetan mahai-ingurua egin zuten 1967-1987 ikasturteetako ikasle ohiekin. Martxoaren 23an, mahai-ingurua 1987-2007 ikasturteetako ikasle ohiekin egingen dute, 18:00etan Beralandetan eta apirilaren 13an, 2007 eta 2017 ikasturteetako ikasle ohien txanda izanen da, ordu eta leku berean.

Apirilaren 20an, 'Toki Ona-ko historia eta istorioa' sol-

saldia izanen da Beralandetan, irakasle eta langileen eskutik, Beralandetan, 18:00etan.

Apirilaren 27an ospakizun ofiziala egingen dute ikastetxean, 12:00etan.

### Maiatzaren 19an egun handia

Egun nagusia eta ospakizunen bukaera maiatzaren 19an egingen dute. Ate Irekien jardunaldia izanen dute eta erakusketak irekiko dute ikastetxean. 11:00etan pilota partida jokatuko dute Eztegarra frontoian Jon Olaizola eta Beñat Mitxelena ikasle ohiek. 14:00etan bazkaria izanen dute Ricardo Barojako frontoian. Txartelak apirilean jarriko dituzte salgai Igantziko estankotan, Arantzako Pabloenea ostatuan, Etxalarko Elutsa ostatuan, Lesakako Izarra okindegian eta Berako Errekalde ostatuan eta Toki Ona institutuan.

## Urrutiko Hizkuntza Eskolaren Bideoklip lehiaketako bi sari irabazi ditu Toki Onak

### TTIPI-TTAPA

Toki Ona institutuak Urrutiko Hizkuntza Eskolak, 25. urteurrena dela eta, antolaturiko bideoklip lehiaketako lehenendabiziko eta bigarren saria irabazi ditu. Epaimahaia eskolako lau departamentu didaktikoetako irakasle batzuek, EOIDNAko Zuzendaria buru zela, osatu zuten.

Lehendabiziko saria Gabriela Gherciu, Amaia Lasaga, Beatriz Garcarena eta Evan Descalzok irabazi dute 'Attachées' lanarekin. Bigarrena, berriz, Enaitz Telletxea, Iker Iriarte, Mikel Galardi, Aimar Otxoteko eta Oier Larretxearen 'Learning inglix' lanak irabazi du. Toki Ona ikastetxeak bai ikasle horiek bai eta Ingeles Departamentua ekimenean parte-hartzeagatik zoriondu nahi izan ditu.



'Attachées' lanaren irudia. UTZITAKOIA

Antolatzaileek ere, saridunak zoriondu eta eskertu nahi izan dituzte, bideoklipak egitean erakutsi duten interes eta abileziagatik. Sariak 25. urteurrena ospatzeko antolatu duten ekitaldian banatuko dituzte, martxoaren 23an.

## Ipuin kontalaria eta antzerkia izanen dira asteburuan

5 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzenduta, Estitxu Mentaberrri ipuin kontalaria izanen da martxoaren 23an, ortziralean 18:00etan herri liburutegian.

Martxoaren 24an, larunbatean 17:00etan, 'Vini, Vidi, Vinci' antzezlan eskainiko du Hiruklun taldeak Kultur Etxean. Lesakako Maria Eugenia Arriola, Maite Bidarte eta Gotzone Rekondok osatzen dute Hiruklun antzerki taldea. Lehendik ere eskainia dute antzezlan Lesakan eta Igantziko Kultur Egunetan, arrakasta handiarekin

## Jendetza atera da karrikara Altsasuko gazteen alde

Antolatzaileen arabera, mila lagunetik goiti elkartu ziren martxoaren 10ean Altsasuko gazteen alde herriko karriketan egin zen manifestazioan. Eskualdeko bertze herrietan barna ere babesa jaso zuten gazte presoek eta lagunak, eta Beran ere jendetza bildu zen. Inguruko herrietako inauterietako protagonistak ere atera ziren manifestazioan, Altsasuko momotxorroekin batera. Bide batez, apirilaren 14an Iruñean egingen den manifestaziora joateko deia egin zuten.

tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA  
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

# LESAKA

## Sanferminetako azal eta kartel lehiaketa deitu ditu Udalak

Martxoaren 23ra bitarte aurkez daitezke lanak eta erakusketa zabalduko dute martxoaren 29tik apirilaren 8ra

### AITOR AROTZENA

2018ko sanferminetako programaren azala eta bestak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu dute, Lesakan jaio edota bertan bizi direnentzat. Lanak udal bulegoetan aurkezteko epea martxoaren 23ko 13:00etan bukatuko da, lehiaketa hauek ohikoa den sistema erabiliz. Azalen neurria A4 (210x297 mmkoa) eta derri gorrez, 'Lesaka 2018ko Sanferminak' agertu beharko da.

Kartel nahiz azal lehiaketen irabazleek 250 euroko saria eramanen dute. Kartela argitaratu egingen da eta azaleko lehen saria programaren aitzineko azalean joanen da.

Bertze aldetik, gibelesko azala aukeratzeko, Lesakako ikas-tetxeetan ikasten ari diren 6 urtetik 12 urtera bitarteko haurrei zuzendutako portada lehiaketa ere deitu du Udalak. 210x297 mmko neurria izan beharko dute lanek eta hemen ere 'Lesaka 2018ko Sanferminak' jarri beharko du nahitaez. Hauen lanak ere martxoaren 23rako aurkeztu beharko dira.



Ezpatadantzariak Sanferminetan. A.A.

Irabazlearendako saria, herriko dendetan eskolako materiala erosteko 100 euroko bonoa izanen da. Aurkezten diren lan guztiekin erakusketa bat osatuko da Kultura eta Turismo Bulegoan martxoaren 28tik apirilaren 8ra. Herri bozketak erabakiko du lehiaketa. Horretarako, erakusketak irauten duen bitartean, bozka emateko aukera izanen dute Lesakan jaiotakoek edo errolatuak direnek.

## Gazte Martxa egingen dute Lesakatik Oiartzunera martxoaren 29an abiatuta

### A. AROTZENA

Martxoaren 30etik apirilaren 1era Gazte Akelarrea ospatuko dute Oiartzunen, Aitzinak eta Ernaik antolatuta. Bortziritako gazteek ere asteburu horretan parte hartzeko deia egin nahi diete eskualdeko gazteei. Horretarako, eskual-

deko mendi martxa egingen dute martxoaren 29an. Plazatik 10:30an abiatu, Gaztinbordea etxolan bazkaldu eta gauean Oiartzunera bidean dagoen Arritxulo aterpetxean lo egingen dute, biharamunean Oiartzunera iristeko. Arranoko zerrandan eman behar da izena.



AITOR AROTZENA

## Sokatira taldea omendu du Beti Gaztek

Euskadiko txapelketan bi kategoriatan txapela lortu eta bertzean txapelkunorde izan ondotik, omenaldia jaso zuen martxoaren 4an Mastegin Beti Gazteko sokatira taldeak. Ohorezko mailako futbol partidaren aitzinetik beraien txapelak erakutsi zituzten eta ohorezko satea egin zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Martxoaren 8ko elkarretaratzea Irainen

Martxoaren 8ko eskualdeko mobilizazioak herrian egin ziren kafe-tertulia eta manifestazio jendetsuarekin bukatu ziren. Horretaz gain, herriko bi ikastetxeetan ere lanuzteak egin zituzten emakumeek eta Irain eskolan elkarretaratzea ere egin zuten ikasle, irakasle eta gurasoek.

DenakBat  
Hemen erabili  
kattagorria  
LESAKA  
948 627 514  
www.kattagorria.com

IRU-BIDE  
OSTATU • JATETXEA  
Arratzubi Kalea 3  
31770 LESAKA  
T. 948 63 71 27

F. LANCHAS  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

## Langilea behar da Turismo Bulegoan Aste Santurako

Udan ere aritzeko interesatuek curriculuma bidali behar dute martxoaren 22a baino lehen

### IRUNE ELIZAGOIEN

Bertze urte batez turismo bulegoko langilea bilatzeko bandoa zabaldu du Udalak. Aste Santuan (martxoaren 29tik apirilaren 2ra) goizetan 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldetan 17:00etatik 19:00etara egonen da zabalik. Udan, berriz, (uztailaren 1etik abuztuaren 31ra) asteartetik ortziralerara 17:00etatik 19:00etara eta larunbat eta igandetan 10:30etik 13:00etara egonen da zabalik. Astelehenetan itxita egonen da. Bisita gidatuak ere egin behar dira, Turismo Bulegoko lanetik kanpo (ordu bateko iraupena izanen dute) eta irabaziak langilearentzat izanen dira; 3 euro pertsonako. Hauek Aste Santuan eguero 13:00etan izanen dira eta udan aste tartzet 19:00etan eta asteburuetan 13:00etan. Inte-

resatuek curriculuma aurkeztu behar dute udaletxean martxoaren 22a baino lehen.

### Zentinelako postontzia ebatsi dute

Larraburua elkarteak eta zanpingorri mendi taldeak jakinarazi dutenez, zentinelako postontzia lapurtu dute eta hau egin duenari itzultzeko eskatu diote.

### Bortzirietako Emakumeen IX. Mendi Martxa herrian egin dute

Martxoaren 11n Bortzirietako emakumeen IX. Mendi itzulia egin zen Etxalarren. 78 emakume elkartu ziren herri sarrerako aparkalekuan eta Azkura joan ziren eguraldi ederrak lagunduta. Herrira bueltan, elkarretaratzea egin zuten plazan eta Herriko Ostatuan bazkaldu zuten.



LANDAGAIN ESKOLA

### Eskolako ikasleak zuhaitzak landatzen

Martxoaren 2an, ortziralearekin joan ziren zuhaitzak landatzera Landagain eskolako, ikasle, irakasle eta hainbat guraso. Axeri Lepoan elkartu eta eguraldia lagun, giro ederrean aritu ziren zuhaitzak landatzen. Ondotik bazkaldu eta jolasteko tarte ere izan zuten.



ETXALARKO GAZTEAK

### Etxalarko gazteak sagardotegian

Sagardotegiko denboraldian bete-bete gaudenean, martxoaren 10ean gazteak Adunako Zabala sagardotegira joan ziren bigarren urtez jarraian. Eguraldia lagun, 40 gazte inguru elkartu ziren eguerdian Etxalarren eta goizaldean egin zuten buelta Hernanitik, giro ederrean ibili ondotik.



IRUNE ELIZAGOIEN

### Arantzako III. Trikitixa Jaialdian

Martxoaren 10ean Arantzako III. Trikiti Jaialdia ospatu zen. Etxalarko trikitilariek ere bertan parte hartu zuten. Argazkian ageri dira Leire Iribarren, Uxue Iturria eta Martxel Larrazak beraiek asmatutako trikiti-doinu bat jo zuten eta txalo zaparrada ederra jaso zuten saritzat.



## Osatuz

Psikologia- Psikoterapia  
Haurrak-helduak

**Garbiñe Goia Irazoki**  
GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA  
BIKOTE ETA FAMILI PSIKOTERAPEUTA  
BAKARKAKO TERAPIAK:  
haurrak, nerabeak, helduak

**619 343 755 Alzate 1 BERA**

## Bi urterako junta berri dute Ekaitza Elkarteak

Hamaike kidek osatuko dute ondoko bi urteetan zuzendaritza batzordea

### NEREA ALTZURI

Ohitura den moduan, bi urte pasatu ondotik, Ekaitza Elkarteak junta berri dute. 94 bazkide ditu gaur egun Ekaitza Elkarteak eta bi urtetik behin, bazkideek hautatzen dituzte zuzendaritza batzordeko kide berriak.

Aldi honetan, 35 bazkidek eman dute junta berritzeko botoa eta joan den martxoaren 2an egindako batzar irekian zenbatu zituzten. Horren arabera, hauek izanen dira batzorde berria osatuko dutenak: Edurne Iparragirre, Juanjo Alzuri, Rakel Arozena, Jon Jorajuria, Jaime Iturria, Dabit Iturria, Ana Maeztu, Markel Jorajuria, Estitxu Iparragirre, Koldobike Gorostiza eta Maider Etxague.

Ekaitza Elkarteak zuzendaritza batzordea utzi dutenak, berri, Julen Oskoz, Juanita Larralde, Xabier Etxague, Andoni Mitxelena, Imanol Lukanbio, Amaia Apaolaza, Idoia Etxeberria, Aitziber Almandoz, Maittere Pagola eta Gaizka Almandoz dira. Bi urtez juntan egon ondotik, guttienez on-



Ekaitza Elkartea. ARTXIBOKO ARGAZKIA

doko sei urteetan berriz zuzendaritzan ez egoteko esku-bidea izanen dute.

Orain arte juntakide izan direnek eta berriek joan den ortziralean egitekoa zuten bilera. Horren ondotik hasiko da junta berria lanean.

### Mendi itzulia eta lasterketa

Mendi lasterketa eta itzulia izaten dira Ekaitza Elkartearen urteko hitzordu garrantzitsuenetako batzuk. Mendi itzulia bi urtetik behin egiten da eta aurten tokatzen da: maiatza-ren 20an izanen da.

Mendi lasterketa, berri, ekainaren 17an egingen da. Hirugarren edizioa izanen da aurtengoa.



MIKEL LARRETXEKA

## Hirugarrena ere arrakastatsua

Jendetza bildu zen martxoaren 10ean egin zen III. Trikitixa Jaialdian. Trikitilari eta dantzarien saio ederrak ikusi ahal izan ziren eta akabilan, herriko txistulariak omendu zituzten. Gaizka Sarasolaren doinuak, aureskua eta oroigarriekin, momentu hunkigarriak pasarazi zizkigun.



ENEKO SARRIAS ETA AITZIBER ABASOLO

## Martxoaren 8a egun seinalatua

Herritarrek ere martxoaren 8ko deialdietan parte hartu zuten. Eguerdian elkarretaratzea egin zuten plazan eta gainera, goizez eta arratsalde, korroan jarrita tertulian aritu ziren. Martxoaren 11n, beheko argazkiko kuadrillak Bortzirietako emakumeen mendi itzulian parte hartu zuten.



Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
tabernabera@gmail.com  
www.tabernaedariak.com



## Junta berrituko dute Baratzondoko urteko bileran

Larunbat ilunabarrean egingen duten bileran hainbat gai landuko dituzte Baratzondo Elkarteko bazkideek

### TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, martxoak 24, ilunabarreko bederatzietan bilduko dira Baratzondo Elkarteko bazkideak, urteko bilera egiteko. Urtean zehar izandako altak eta bajak, kontuak, etabar izanen dira jorratuko dituzten gaiak, juntako lau partaide berri aukeratu baino lehen.

Orain juntan daudenak hauek dira: Jose Antonio Urtizberea lehendakaria; Ana Isabel Etxeberria lehendakariordea; Anuntxi Txoperena diruzaina; Anttoni Goienetxe idazkaria; eta Amalia eta Manuela Sein bokalak. Horien artean, lehendakariordea eta diruzaina dira heldu den urtera arte segituko dutenak. Bertze gainerako lau karguak larunbat honetan egingen duten bileran aukeratu dituzte.



Jubilatuaren bazkaria. OSKAR TXOPERENA

### Arkupeakeko bazkideen bazkaria

Arkupeak Elkarteko Lesaka eta Igantziko 27 bazkide Baratzondon elkartu ziren bazkaltzera joan den martxoaren 10ean. Jakina denez, herri bakoitzeko arduradunek bazkari bana antolatzen dute, denboraldi berriari hasiera emanez, nolabait. Egun berean, hildako elkartekideei meza eskaini zieten bazkaldu aitzinetik.

## Patxi Loiarte Donezteben txapeldun

Donezteben jokaturako banakako txapelketan garaipena lortu zuen Patxi Loiartek. Bekoetxe pilotariak kadete mailan jokatu du aurten eta Aimar Berekoetxea garaitu behar izan zuen finalean.



OSKAR TXOPERENA

## Elkarretaratzea Emakumearen Egunean

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, elkarretaratzea egin zuten martxoaren 8ko eguerdian Herriko Etxearen atarian. Eskolako ikasle eta irakasleekin batera, hainbat herritarrek parte hartu zuten ekitaldian. Plantorako egindako deialdiarekin ere bat egin zuten herritar batzuek.

**LABE ZAR**  
Astelehenetik ortziralerara:  
07:15etik aitzinera  
Larunbata eta igandea:  
08:00etatik aitzinera  
948 631 076 • BERA

**KSAT**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA  
T. 637 40 86 40 • 31780 BERA • andonimatxako@gmail.com

- > TDT instalazioak
- > TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- > Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- > Satellite bidezko interneta
- > Internet konexio simetriko ultralasterra

**JAIÑONE-GOXOTEGIA**  
Etxean egindako produktuak  
948 630 786 • Alitzate, 21 • BERA

**ZUMARBEL**  
creaciones metálicas  
Igantzi (Navarra)  
948 63 74 11

**Lehen A.T.M. S.A**  
Berrizaun 25,  
31790 IGANTZI  
T. 948 63 74 11  
@zumarbel@hotmail.com  
www.zumarbel.es

**EDERKI** tailerra

**CITROËN**  
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa  
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

**24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA**

Leitzako bidea • DONEZTEBE • 948 450 525

## Asteburu Kulturala ekitaldiz gainezka dator aurten ere

Egitaraua borobiltzeko, Artisau Feriaren eta gazta lehiaketaren hamaikagarren edizioa egingen dituzte igandean

### MAIDER PETRIRENA

Martxoko azken asteburuan egingen da berriz ere Asteburu Kulturala. Ekitaldiz gainezka dator eta igandean, artisau feriak eta gazta lehiaketak hamaikagarren edizioa beteko dute.

### Ortziralea, martxoak 23

16:00etatik 19:30era haurrentzako puzgarriak 'Espectáculos Colorín' taldearen eskutik. Tartean berendua izanen dute. 19:30ean 'Ganberroak' izeneko monologoa Ulibeltzak elkartearen. Ondotik afari autogestionatua eta 'Sorpresa sorpresa' Ulibeltzak Elkartearen.

### Larunbata, martxoak 24

08:30ean mendi ibilaldia oinez edo bizikletaz Suspirora (plazan elkartuko dira). Bertan gosaria egingen dute. 11:00eta-

tik 13:30era puzgarriak. 14:00etan Bazkaria Ulibeltzak elkartearen. 16:00etatik 19:30era puzgarriak eta berendua izanen dira ttikienendako. 17:00etan mus eta txintxon txapelketa jokatu dute Ulibeltzak elkartearen. Ondotik, gurpil gainezko poteoa. Ortzirale eta larunbateko puzgarriak plazan edo frontoian jarriko dira, eguraldiaren arabera.

### Igandea, martxoak 25

10:00etatik 14:00etara XI. Artisau feria eta gazta lehiaketa. 11:30ean herriko dantzarien emanaldia. 14:00etan bazkaria Ulibeltzak elkartearen. 16:30etik 19:00etara Artisau feria. 19:30ean Gazta lehiaketako sari banaketa, gazta erdien zozketa eta zare eder baten zozketarekin borobilduko dute Kultur Asteburua.



ESKOLAK UTZIA

## Emakumearen Eguna eskolan

Sunbillako eskolako ikasleek eta irakasleek Emakumearen Egunari buruzko murala osatu zuten martxoaren 8ko ospakizunean. Talde bakoitzak egunean zehar bere zatia egin zuen eta azken orduan, denak elkartu eta elkarrekin erakutsi zuten beraien lana.



MIREN HERNANDORENA

## Haur kantari jaialdian parte hartu dute

Haur eta Gaztetxoan jaialdiaren lehen saioa Berako Kultur Etxean ospatu zen martxoaren 3an eta bertan herriko artisten bi taldek parte hartu zuten, 'Arraroa noski' eta Miren Hernandorenaren hitzak dituen 'Gerri mugimendua' abestuz. Mendaur taldearekin ere aritu ziren batzuk.

## Herriko bi musikari Arantzako III. Trikitixa Jaialdian

Martxoaren 10ean Arantzako III. Trikitixa Jaialdia ospatu zen. Bertan Mendaur Trikitixa pandero eskolarekin bi sunbildarrek jaialdian parte hartu zuten: June Aiesa Rekarte eta Ane Zelaieta Indakoetxeak. Zorionak bie!



MAIDER PETRIRENA



BIXENTE IBARRA

## Herriko hiru judoka gazte lehian

Martxoaren 10ean Mendillorriko kiroldegian hasi zen judoko alebin mailako Kirol Jokoen txapelketa. Bertan hiru sunbildarrek parte hartu zuten: Hodei Gastesi Etxebeste, Uxue Ibarra Mariezkurrena eta Jon Ibarra Olaetxea. Uxuek eta Jonek hurrengo fasean parte hartuko dute.



Kontzertua ikustera joateko gonbidapena luzatu dute kideek. MENDI ABESBATZA

## Sakro kontzertua eskainiko du Mendi Abesbatzak

Martxoaren 23an, ortziralean, 20:00etan izanen da saioa, San Pedro Elizan

### MARGA ERDOZAIN

Martxoaren 8ko kontzertu ikusgarriaren ondotik, martxoaren 23an bertze emanaldi bat eskainiko du Mendi Abesbatzak. Sakro kontzertua izanen da oraingoan, ortziralean, 20:00etan Doneztebeko San Pedro Elizan eskainiko dutena.

Abesbatzako kideek omenaldi horretara bertaratzeko gonbidapena luzatu nahi izan diete herritarrei, «aurreiritzi eta ezjakintasunak alde batera uzteko» deia eginez. Horretarako, mundu osoko koralean sorkuntza kopuru handiena, seguru asko, sakroa dela jakinarazi nahi izan dute. Era berean, garai eta estilo anitz biltzen dituen generoa dela nabarmendu dute.

### Egitaraua

Ilunabar ederra izan dadin, egitarau zabala prestatu dute abesbatzako kideek.

Tomás Luís de Victoriaren 'O Magnum Mysterium' maisulanarekin hasiko dute sakro kontzertua, ondotik Julio Domínguez galiziararen 'Tres motetes para o tempo de Na-

dal' obra, ahots ederrez hornituta, plazaratuko dute. Geroan sarturik, Aita Gurea ardatz duten hiru obra abestuko dituzte, bertze hainbertze hizkuntzetan: Maurice Durufléren 'Notre Père', Xabier Sarasolaren 'Pater Noster' eta Aita Madinaren 'Aita Gurea'. Ondotik, 'O Salutaris hostia' testuaren gainean konposaturiko bi obrari helduko diete; bata Eriks Ešenvalds-ena, eta bertzea Vytautas Miškinis-ena.

Hasierako zatia akitzeko, bi 'ave verum' abestuko dituzte; bata Galeseko Karl Jenkins konpositorearena (hau ere bizirik dago) eta bertzea Wolfgang Amadeus Mozart handiarena.

Kontzertuaren bigarren zatia, berriz, elizako korotik abestuko dute. Eta kasu honetan Mendi Abesbatzako kideek bertako Cavaillé-Coll organoaren laguntza izanen dute. Bertan Lorenzo Perosiren 'Missa Secunda Pontificalis' eta 'Kyrie' hunkigarria eta Charles Gounod handiaren 'Sanctus' ikaragarria eta César Franck-en 'Panis angelicus' obrak joko dituzte.

### Herrigune-planaren onarpena bertan behera oraingoz

Herriguneko planaren behin-behineko onarpena bertan behera utzi eta onartu aitzinetik eman beharreko urratsak zehaztu ditu Udalak. Bertzeak bertze, hirigintzako tekniko eta bertako komertzianteeekin bilerak egitea aurreikusi dute. Ondotik, eta iritzia eta proposamenak jasota, herritarrei planaren nondik norakoak eta aukerak aurkeztuko dizkiete. Behin-behineko onarpenaren ondotik, hilabete bateko epea izanen da alegazioak egiteko eta prozesu osoa webgunetik jarraitzeko aukera izanen da.

### 'Ritme Alaia' hiri-dantza kongresua izanen da herrian

Martxoaren 29tik apirilaren 1era, ortzegunetik astelehenera, 'Ritme Alaia' hiri-dantza kongresua herrian egingen da. Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Bartzelonako eskoletako irakasleek antolatuta, hamar orduko masterclass ikastaroak eta Batles 2vs2 All Styles lehiaketa izanen dituzte.

Ekimen horrekin, Aste Santuan bai bertan gelditzen diren herritarrek bai eta bisitariek ere, dantza estilo guztietako saio eta lehiaketak ikusiz, gozatze-ko aukera izanen dute, irakasle trebatuen eskutik.

### Turismo bulegoa zabalik izanen da Aste Santuan

Iaz bezala, aurreneko herriko turismo bulegoa zabalduko dute Aste Santuan, martxoaren 24tik apirilaren 8ra bitarte. Horren bidez, Udalak herrira bertaratzeko diren bisitariek behar bezalako harrera eta zerbitzuei buruzko informazioa jasotzea lortu nahi du.

### Mendaur eskolako 5 ikasle sarituak Paris eta Estrasburgon

Euroeskolako sari bati esker, Mendaur Institutuko 5 ikasle eta irakasle bat Parisen eta Estrasburgoko parlamentuan egon dira. Ikasleetako batek Parlamentuan bailara eta gure institutu eta kultura ezagutzera eman ditu. Zorionak eta altxatu esperientzien motxilan!



UTZITAKO ARGAZKIA

### M8ak sentsazio itzelak eragin ditu

Aurtengo ospakizuna berezia izan da: lapiko zaharren asotsa, lila lasterketa, komunikatuak, filmak, flashmob, bazkaria, antzerkiak... Olatu morea izan da Donezteben, eskualdean, Euskal Herrian, baita mundu osoan ere. Hasiak gara jada martxoaren 8a ospatuko ez den mundua eraikitzen.



Pulunpa eskolako ikasle eta irakasleek ere aldarrikapenak plazaratu zituzten.

## Kontakizun ilustratua izanen dute hilaren 24an

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, 'Ni ta punto' emanaldia eskainiko dute udaletxeko ganbaran

### ARKAITZ MINDEGIA

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, eskualdeko bertze eskola ttiketako langileek bezala, Pulunpa eskolako irakasle, ikasle eta jantokiko langileek ere beren aldarrikapen kartelak plazaratu zituzten. Baina hezkuntza alorreko langileez gain, herriko gainerako emakume aunitzek, bakoitzak beren lantokiak utziz, plantoarekin bat egin zuten.

Era berean, emakume eta gizonezkoen berdintasunarekin bat egiten zutela adierazteko, pankartak zintzilikatu zituzten herrian. Herritar aunitz inguruko herrietako manifestazioetara joan ziren. Asteburu horretan emakume afariak ere izan zituzten; martxoaren 9an Aurtitzen eta 10ean Iturenen, zehazki. Eta, oraindik orain, Emakumeen Egunaren harira Malerrekako Mankomunitateak antolatutako kontakizun ilustratuaz gozatzeko aukera izanen dute, martxoaren 24an, larunbatean. 18:30ean izanen dute 'Ni eta punto' ikusteko hitzordua, eta herriko ganbaran elkartzeko

dira. Larunbat ilunabarrerako hitzordua badugu herrian, beraz.

### 'Ni ta punto'

Ordu beteko kontakizun ilustratu horrek zenbait istorioren kontaketa du ardatz. Bai hizkuntza bai eta mezua ere gertutik zainduz, sexu, arraza edo baldintza sozialak bultzaturiko bazterkeriaren aurka egitea eta herritarren kontzientzian eragitea du helburu.

Istori horietako batek, zehazki, emakumeen gobernatzeko ahalmenaz dihardu. Erdi Aroko ipuin batean historikoki gizonezkoek bete izan dituzten rola emakumeek betetzen dituztela da kontagai. Horrela hainbat dira gogoeta sustatzeko bultzatzen diren galderak: 'zer gertatuko litzateke arranoa oiloen artean hazten badugu?' gisakoak.

Bertze kontaketa batean, berriz, amodioaren izenean bakoitzak bere buruari jartzen dizkion zentsurak islatzen dira. Badago, halaber, plazerra eta askatasun sexuala aldarrikatzen duen istorio bat, neska baten ikuspegitik kontatua dena.

## Herritarrek Bardoak finalean izanen dira matxoaren 24an

Martxoaren 24an Lekunberrin jokatu den Bardoak egitasmoaren finalean herritarrek parte hartzen duten Adams familia taldea ariko da kantari, Leitzako Aldatzea komeni eta Lesakako Unibertsolariak taldeekin batera. Izan ere, Erratzuko Zubi Punta ostatuan Topa Bardo Kopa! taldeari irabazteari esker, bigarren puntua eta finalerako txartela eskuratu zituzten. Iker eta Egoitz Gorosterrazu anaiak eta Alazne Untxalo dira herritarrek eta zorte ona opa nahi diegu.

## Maika Ariztegi Urrezko Aizkolarien txapelketa izan da

Joan den martxoaren 4an jokatu zen Urrezko Emakume Aizkolarien Txapelketa, Azpeitian (Gipuzkoa). Lehia gogorra jokatu behar izan zuen Maika Ariztegi herritarrek Irune Izkuere (Elgorriaga), Nerea Sorondo (Bera) eta Irati Astondoa garaitzeko. Nerea Sorondo izan zen bigarrena, segundo bat eta hogeigun segundo-ehun beranduago akitu baitzuen. Hirugarren Irati Astondoa izan zen eta laugarren postuan Irune Izkuere gelditu zen, joan den urtean txapelketa izana.

## Iraide Alberrok judo denboraldia hasi berri du

Doneztebeko judoekin batera, Iraide Alberro herritarrek denboraldiko lehendabiziko lehia jokatu du. Hurrengo faseerako sailkapena Gaxuxa Zelaietak, Maialen Maritxalar eta Uxue eta Jon Ibarrek lortu dute. Apirillean guztiei dominak emanen dizkiete.



Apirilean dominak emanen dizkiete.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Altsasuko presoekiko elkartasuna

Altsasuko gazte presoekiko aldeko martxaren 3. etapa herritik pasatu zen. Bai Iturenen bai eta Aurtitzen ere, elkartasuna adierazteko kontzentrazioak egin ziren. Era berean, Iturengo joaldunak Berako manifestazioan izan ziren. Ea apirilaren 14an Iruñean eginen den manifestaziora animatzen diren!

## Txapartegik irabazi du Mindegiaren aurkako lehia

Sei segundo-ehuneneko aldearekin gailendu zitzaion gipuzkoarra.

### FERMIN ETXEKOLONEA

Martxoaren 11n, Luis Txapartegi eta Mieltxo Mindegiak Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan jokaturiko lehia, sei segundo-ehuneneko aldearekin akitu zen. Luis Txapartegi, eskarmentu handiko aizkolari gipuzkoarra, gailendu zitzaion Mindegia herritarrari.

Pilotaleku bete jende bertaratu zen apustu gogor bezain lehiakorra ikustera. Zutik, apustuari erabat lotuta eta gozamenek ikusi zuen apustu gogoangarria.

Txapartegik 42 minutu 50 segundo eta 54 segundo-ehuneko behar izan zituen heinean, zubietarrak 42 minutu 50 segundo eta 60 ehun-segundotan ebaki zituen zortzi kanaerdiko, lau ontzako eta bi oinbikoak. Lehia arront berdindua izan zen, 600 ikus-



Mindegia eta Txapartegi. A.D.C.

le zaleturen oihuz eta txaloz girotua. Mindegia 19 segundoko aldearekin ailegatu zen azken enborrera, baina Txapartegik azken txanpan bere gaitasun guztia azaleratu zuen, Mindegia mendean hartuz.

Zubietarrak aitaren, Migel Mindegiaren, eta Lorentxo Apezetxearen laguntza izan zuen. Txapartegik, berriz, Jose Mari Esnaola eta Jose Migel Peñagarikano izan zituen laguntzaile.



## Giro ederra izan dute emakume afarian

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, martxoaren 10ean Izaskun Zubialdek 'Sarerik gabe' liburuaren aurkezpena egin zuen. Ondotik, afaria izan zuten eta 30 lagun bildu ziren. Bapo afaldu ondotik, Joxe Mari Mitxelena eta Olaia Loiarteren eskutik dantzarako tartea izan zuten.

## Altsasuko presoen aldeko joare kolpeak

Herritarrek Altsasuko presoe-kiko elkartasuna adierazi zuten, eskualdean antolaturiko ekintzetan parte hartuz. Batzuk Itureneko aldarrikapenera joan ziren; besteak, berriz, Elizondoko manifestazioan parte hartu zuten, joareak astintuz.

## Aitor Agestaren literatura-lana saritua izan da

Aitor Agesta herritarrak Asun Casasola Ipuin Lehiaketako saria irabazi du, 12-16 urte bitarteko gazteen kategorian 'Ez da ez' lanarekin. Martxoaren 15ean jaso zuen saria: 150 euro eta Brönte liburu-dendan erabiltzeko 50 euroko erosketaxartela.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Udaberriko kolekzio berria!**

**Maindire eskaintza anitza**

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak  
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

# BAZTAN-BIDASOA



Aisialdian euskara erabiltzea da udaleku hauen helburua. UTZITAKO ARGAZKIA

## Euskaraz Blai eta Udaleku Ibiltariak eskainiko dituzte

Beintzako eta Arantzako aterpeetan izen-emateko epea martxoaren 26tik maiatzaren 13ra irekiko dute

### TTIPI-TTAPA BERTIZ

Abian da Arantzako Aterpeak eta Beintzako Aterpetxeak antolaturik, eta Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoaren laguntzaz, gaztetxoaren artean euskararen erabilpena sustertzeko Euskaraz Blai 2018 udalekuen kanpaina. Bertizen martxoaren 16an egindako

aurkezpenean azpimarratu zutenez, «helburua euskara aisialdian erabiltzea da, euskararen erabilera kasu aunitzetan eskola eremura mugatzen delako».

### Euskaraz Blai 2018

Aurtengoa zortzigarren edizioa izanen da. Guztira 600 plaza

eskainiko dituzte bi aterpeetan banaturik eta adinaren arabera antolatuta. 2006-2009 urteetan jaiotako gazteak multzo batean eta 2003-2005 urteetan sortutakoak bertze batean. Ekainaren 24an hasi eta abuztuaren 4ra arte eskainiko dituzte udalekuak eta uztailko plazak ziurtatuta daude. Kanpalekuen iraupena astebetekoa da eta denbora horretan, gaztetxoek naturarekin harreman zuzena izanen dute, espeleologia egin ahalko dute, talo tailerrak, baserrira bisitak edo zuhaitzetan jokoak, dena euskaraz.

### Kontrabandisten udaleku ibiltaria abuztuan

13 eta 18 urte arteko gaztetxoentzat Kontrabandisten Udaleku ibiltaria ere eskainiko dute bigarren urtez. XX. mendean kontrabandistek zeharkatu zituzten bidezidorretan barna, gazteak Arritxulotik (Oiartzun) atera, eta Arantzako Aterpean barna, Beintzako Aterpetxera helduko dira. Bi txanda izanen dira, abuztuaren 5etik 11ra eta abuztuaren 19tik 25era. Udaleku Ibiltarian izena emateko epea martxoaren 26tik maiatzaren 13ra irekiko dute.


## 60.000 lagunek bisitatu zuten iaz Igantziko IrriSarri Land parkea

### TTIPI-TTAPA IGANTZI

Jarduera berriak eta hobekuntzak nahiz instalazio handiagoak eta ekitaldi berriak dira nagusi 2018ko denboraldiaren hasiera honetan, Igantziko IrriSarri Land resort eta abentura parkearen bosgarren denboraldian, atek berriro zabaldu baititu martxoaren 16an. Joan den sasoiaren instalazioek 60.000tik gora lagunak bisitaldia jaso zuten.

Jardueretan, arborismo jarduerak berri bat abian jarri izana da gauza berririk aipagarriena; 45 erronka dira bi gunetan, barnekoa eta kanpokoak. Seguritasun-sistema berria dakar; bizi-lerro jarraitua erraten zaiona.

Kanpoaldean, instalazioak erabat ordezkatu du aitzineko abentura-bidea, eta orain, 30 jolas eskaintzen ditu, hiru zirkuitutan banatuta. Ibilbide horren osagarri, badira bi via ferrata eta altuera-ibilbide bat, Jolastokian egin daitekeena. Lau sarrera-mota izanen ditu.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Baztan-Bidasoaldeko III. Stock Feria

Jendetza bildu zen martxoaren 10 eta 11n Doneztebeko kiroldegian, Denok Bat Federazioak antolatutako III. Stock Ferian plazaratutako produktuak ikustera eta erostera. Erosleen artean zozketatutako 200 euroko erosketa-bonoa Lesakako Izaskun Porturi egokitu zitzaion.



UTZITAKO ARGAZKIA

## IrriSarri Land parkeak atek ireki ditu

IrriSarri Land Abentura Parkearen bosgarren denboraldiaren aurkezpena egin zuten martxoaren 14an. Ezker-eskuin, Mikel Ibarrola jarduerak buru, Joxe Elgorriaga kudeatzailea, Baxi maskota, Lolo Carrillo zuzendaria eta Javier Losada erreataurazio-buruak ageri dira.



Arkupeak elkarteko herriko bazkideak, gustura bazkalondoan. JAIONE ZABALO

## 15 lagun Arkupeak elkartearen herriko bazkarian

Hildako bazkideen omenez meza entzun ondotik Barrankan egin dute otordua martxoaren 4an

### JAIONE ZABALO EZKURRA

Urtero bezala, aurten ere Arkupeak Elkarteko herriko bazkideek bazkaria egin zuten Ezkurran. Martxoaren 4an izan zen eta hamabost lagun bildu ziren. Eguerdian, elkarteko hildako kideen omenez meza entzun ondotik, Barranka osatuan ederki bazkaldu zuten. Bazkalondoan, lehengo eta oraingo kontuez aritu ziren. Arkupeak Elkartea 1986ko ekainean sortu zen, baina urtebete beranduago hasi omen ziren herriz herriko bazkariak ospatzen, orduko mila pezeta inguru ordainduz. Garai har-

tan, Ezkurrako delegatua Francisco Gorostiaga zela ere aipatu zuten. Honen ondotik, bere emaztea, Feli Gartziarena aritu zen denbora labur batez elkarteko delegatu lanetan. Gaur egun, berriz, Vicenta Perurena dugu Ezkurran Arkupeak Elkarteko ordezkaria. 23 bazkidek emana dute izena elkartean eta herriko bazkaria egiteaz gain, urte osoan egindako ekintzetan ibiltzen dira, aski gustura. Esan beharrik ez dago, egun bateko nahiz luzeagoak diren bidaiak direla arrakastatsuenak eta herritarrek ere joaten direla.

## Urteko azken Malerreka Kantuz saioa herrian eginen dute abenduaren 1ean

### TTIPI-TTAPA

Malerreka Euskara Zerbitzuak hilero antolatzen duen Malerreka Kantuz ekimeneko urteko azken saioa Ezkurran izanen da abenduaren 1ean. Lehen saioa Saldiasen egin zuten urtarrilean, bigarrena Sunbillan izan zen otsailean

eta hirugarrena Iturenen martxoan.

Ondotik, apirilaren 7an Donamarian, maiatzaren 5ean Donezteben, ekainaren 2an Urrozen, urriaren 13an Zubietan, azaroaren 3an Oizen eta abenduaren 1ean Ezkurran izanen dira.



JAIONE ZABALO

## Talo-jatea prestatu dute jubilotekan


Jubilotekan lanean segitzen dute 12 herritarrek, astean behin, asteazkeneko 10:00etan. Egun horietako batean taloak egin zituzten eta aski goxoak atera ziren, gainera. Gazta, txistorra, txokolatea edo bakoitzak nahi zuen modura jateko aukera izan zuten, gosari ederra eginez.

# LULE

*Kafetegi berria Donezteben*

Pintxoak, etxean egindako bizkotxoak eta Roskilule produktuak

ORDUTEGIA: 07:00-14:00 | 16:00-20:00 (Asteazken eta igande arratsaldetan itxita)

T. 948 450 996 • 619 913 375 | Leitzako errep., 6 - behea DONEZTEBE  CafeteriaLULE



## Gaueko lana berritu dute Labaienen eta Saldiasen aurten

60 bat lagun bildu ziren martxoaren 10ean eta Pedro Urrutia saldiastarraren testigantza aditzeko aukera ere izan zuten

**MARKEL LIZASOAIN** SALDIAS  
Martxoaren 10ean, Bidasoako Kontrabandistek antolatuta, garai bateko ibilerak berritu zituzten Labaienen eta Saldiasen: jendea nola ibiltzen zen kontrabandoan, paketeak bizkarrean edo mandoan. 60 bat lagun elkartu ziren bakoitzak bere kopetako argiarekin, Beintzako aterpetxean. Haize hego epelarekin eta zerua izar, Labaiendik Amesara atera ziren, eta handik Saldiasko herrira jautsi. Herrian, hor zegoen zain Pedro Urrutia, 90 urte beteak, tente asko, lehengo denboretan kontrabandoan ibilia, eta esplikazio batzuk eman zituen bera nola ibiltzen ligoara pakete garraio mandoarekin. Handik gero, Barbaratik, Aieletara joan ziren, baina, lehengo bide zaharretik ezik, lohia zela eta, Lopren-

go bordatik pasatu ziren, eta pista gora leporaino. Han, eltzetzuak azaldu ziren, eta alto eman. Antzerki pixko bat egin zuten, eta, hura akituta, bueltan Labainera jautsi ziren.

### Seigarren edizioa

Seigarren aldia dute Bidasoako Kontrabandistek Lan Gaua antolatzen. Aurtengoan Baztan-Bidasoa Turismoaren eta Beintza-Labaien eta Saldiasko Udalen laguntza izan dute. Aurreko txandetan, ibili dira Etxalarren, Arantzan, Oiartzunen, Hondarribian eta Baztanen. Etxalarko Xanti Elizagoien izaten dute aldean, eta poliki asko kontatzen du albarka jauntzita nola ibiltzen ziren gauez batetik bestera. Webgune bat ere badute, ibilbideekin eta azalpenekin ([www.kontrabandistak.com](http://www.kontrabandistak.com)).



60 lagun ibili ziren kontrabandisten bideetan. UTZITAKO ARGAZKIAK

### Malerrekako VIII. Joko Topaketak Sunbillan prest

Malerrekako Herri Eskoletako VIII. Joko Topaketa eginen dute martxoaren 28an Sunbillan eta Malerrekako sei eskola ttiketako (Saldias, Beintza-Labaien, Ituren, Legasa, Narbarte eta Sunbilla) ikasle, irakasle eta gurasoak elkartuko dira.

Heldu den asteazkenean, 09:30etik 11:00etan ginkana eta jolasak izanen dituzte eta Lupe Lekuona ipuin kontalaria ere etorriko da. 11:00etan gosaria izanen dute eta 11:30ean Txan Magoaren ikuskizuna.

### Saldiasko frontenis txapelketan izena emateko epea irekia

Saldiasko frontenis txapelketa antolatu dute herriko gazteek. Apirileko lehenbiziko asteburuan hasiko da, eta martxoko hila eta apirileko lehenbiziko astea daude oraindik izena emateko. Parejako, 5 euro dira, eta San Joanetan finalera ailegatzen direnek saria izanen dute.

Ligaxka eran jokatuko dute hasieran, eta lau onenek, finalerdietan, kanporaketa izanen dute finalerako txartel baten bila. Izena emateko interesa duenak, deitu diezaiola Ibairi: 626 395425.



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

### Endika eta Juanenea bikote txapelketan

Ezusteko polita ekarri digu aurten erremonteko Sagardoaren Txapelketak: herriko bi erremontelari, Endika Urrutiak eta Aritz Juaneneak bikotea osatzen dute, Larre Gain sagardotegiaren izenean. Ea bidea egin eta apirilaren 28ko finalerako lekua lortzen duten.



## Basoen Nazioarteko Eguna ospatuko dute asteburuan

Igandean, 'Basoko bideetan barrena' liburua aurkeztuko du Hasier Larretxeak Bertizko Natur Parkean

### TTIPI-TTAPA BERTIZ

Nazioarteko Basoen Eguna ospatu dute martxoaren 21ean eta horren harira, Bertizko Natur Parkean ekitaldiak antolatu dituzte asteburu honetan.

Hasteko, martxoaren 17tik apirilaren 8ra arte Zuhaitz Zaharren Lagunen Elkarrekin utzitako argazki erakusketa ikusgai izanen da Pedro Ciga aretoan.

Martxoaren 24an, larunbatean 09:00etan, Zuhaitz Zaharren Lagunak elkarteko Oscar Schwendtner-ek 'Zuhaitz zaharrak. Hauen garrantzia basoetan' hitzaldia eskainiko du. 10:00etan, gaztainadiak eta hauen gaur egungo egoera eta etorkizuneko ikuspegiak izanen ditu hizpide Josefa Fernandez, Mendi Ingeniaria eta Galiziako Xuntako Oihan

Ikerkuntza Zentroko Hobe-kuntza Genetiko eta Oihangintzako Departamentuko arduradunak. 11:15ean, Migel Mari Elozegi leitzarrak 'Bertiz, okilen erresuma' hitzaldia eskainiko du euskaraz. Nafarroako Gobernu Inguru Naturaleko Zerbitzura atxikitutako biologoa da Elozegi. 12:30ean Bertizko Natur Parkeko Hide-aren inaugurazioa egingen dute.

Aipatzekoa da goizean zehar, 10:30etik 13:30era Bertizko Jauregiko patioan haur eta bisitariarentzat ekintzak eskainiko direla. Alde batetik, egur tornularitza tailerra izanen da. Hainbat teknika eta egur erabiliz egindako piezak erakutsiko dituzte. Bertze aldetik, txorien bazkatokien tailerra ere egingen dituzte etxeko tti-kientzat.



Guraso eta neska-mutikoak Meate inguruan. OLATZ MUTUBERRIA

### Zuhaitzaren Eguna Narbarten

Narbarteko gaztetxoek Meate mendian zuhaitzak landatu zituzten otsailaren 24an, eta naturarekin bat egiteko aukera izan zuten. Eguraldi eguzkitsua lagun, goiz ederra pasatu zuten. Ekitaldia ederki akitzeko, gurasoekin batera Legasan bazkaldu zuten.

### Hasier Larretxearen liburuaren aurkezpena igandean

Martxoaren 25ean, igandean 12:00etatik 13:00etara, Hasier Larretxea idazleak 'Basoko bideetan barrena' bere azken liburua aurkeztuko du.

50 urte baino gehiagoz basoan lanean eta zuhaitzekin harremanean dabilen Patxi Larretxea aita aizkolariaren bizipenen bitartez, basoetako bizitzarekin zerikusia duten

istorioen testigantza eman nahi du liburu honetan Hasier Larretxeak. «Ni poz-pozik nago liburutto honekin. Gainera, Zuri Negrin ilustrazioak atal bakoitzaren hasmentan presente daude, bai eta Paola Lozanoren argazkiak ere. Izugarri politak dira, Baztan-Bidasoaldekoak batzuk, Nafarroako eta Huescako Pirinio-koak bertzeak 16, orotara», aipatu digu Arraiozko idazleak.



OLATZ MUTUBERRIA

### Martxoaren 8ko ospakizuna Narbarten

Martxoaren 8a Emakumeen Eguna zela eta, larunbat horretan Narbarteke emakumeek afari ederra egin zuten. Aurten, adin talde guztietakoak izan ziren, saltsa eta giro onean. Afal ondoan, kantu zaharrak abestu zituzten, tartean, garai batean Emakumeen Egunean kantatzen zena.




**Carnes Sein Haragiak, S.L.**  
 Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
 T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



**BEROPEL**  
egurrezko pellets

EHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250

info@echevestehermanos.com  
www.echevestehermanos.com



ES 025



Addams Familia eta Topa Bardo kopa! taldeak Erratzuko Zubi Puntan. UTZITAKOIA



Unibertsolariak eta Larraun-Araitzeko taldea Lesakako Arranon. UTZITAKOIA

## Bardoak ekimeneko finalean eskualdeko bertsolariak kantari

Martxoaren 24an Lekunberrin jokatu den saiorako txartela lortu dute Baztan-Malerreka, Leitza eta Lesakako taldeek

### TTIPI-TTAPA

Bardoak ekimeneko bigarren faseko azken hiru saioak jokatu ziren martxoko bigarren asteburuan eta horien ondoren hiru taldek lortu dute Bardoak Nafarroako taldeak bertso ekimenerako finalerako txartela. Baztan-Malerrekako 'Addams familia', Leitza 'Aldatzea komeni' eta Lesakako 'Unibertsolariak' izanen dira martxoaren 24ko Lekunberriko finalean kantatuko duten hiru taldeak.

'Addams familia' eta 'Topa Bardo kopa!' taldeak izan ziren kantuan martxoaren 9an. Erra-

tzuko Zubipuntan eta saioa parekatua joan bazen ere, azkenean etxeok lortu zuten finalerako sailkatzea.

Egun berean, Leitza 'Gaztetxean' izan ziren Bardoak. Etzeko 'Aldatzea komeni' taldeak Berako 'Ibardin' Hiru ta lau dira zazpi' taldearen bisita jaso zuen. 50 lagun izan ziren gaztetxean saioa segitzen. Hemen ere etxeok eskuratu zuten jokoan zen puntua eta bi saioak irabazita, Lekunberriko finalerako sailkatzea.

Azkenik, martxoaren 11n Lesakako Arrano elkartean bigarren faseko azken saioa



Bera eta Leitza taldeak, Berako Katakun egindako finalaurrekoan. UTZITAKOIA

jokatu zuten 'Unibertsolariak' eta '(Larraun da Araitz) Bi dozena' taldeek. 50 lagunek segitu zuten saioa bertatik bertara. Lesakarrek irabazi zuten saioa eta finalerako sailkatu.

Horrenbateraz, aurtengo Bardoek badituzte finalistak: Baztan-Malerrekako 'Addams familia' (Iturengo Alazne Untxalo eta Iker eta Egoitz Gorosterrazu eta Oronozko Amaia Elizagoien bertsolariekin) Leitza 'Aldatzea komeni' (Diego Riaño, Mikel Azpiroz,

Aitzol Eizmendi eta Joanes eta Xabat Illarregi anaiak) eta Lesakako 'Unibertsolariak' (Eneko Fernandez, Iban Garro, Josu Sanjurjo eta Jon Silveira). Finala martxoaren 24an jokatu da, larunbatean 17:30ean Lekunberriko Toki-Alai sagardotegian. Hiru talde horietatik aterako da Bardoetako laugarren edizioa irabazlea. Finalerako zein ondoko afarirako txartelak dagoeneko salgai daude [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean.

**FRUTAS DE VARDARAN**  
**ERRANDONEA, S.L.**  
 FRUTAS DE BARRANCOA

**BILTEGIA: 948 630 102**  
**SAKELAKOA: 633 480 563**

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

**ANTZUZELAI**  
 S.L.

BERA • T. 948 63 13 17  
 info@antzuzelai.com  
 www.antzuzelai.com

HARGINTZA  
 FATXADAK  
 TXIMINIAK  
 ZOLAK  
 TAILLA ARTISTIKOAK  
 OBRAK



**Kanttonberri 12 • BERA**  
 T./Fax: 948 630 018

ETXERA  
 ERAMATEKO  
 ZERBITZUA  
 URTE OSOAN

**okaNe**

HARATEGIA / URDAITEGIA  
 Eñaut & Nekane

**ALBERTO RETEGI**  
 abokatua  
 abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

# Irakurzaletasuna bultzatzeko 'Irakurri, gozatu eta oparitu'

Malerrekan eta Leitza, Areso, Goizueta eta Aranon martxoaren 12tik maiatzaren 31ra abiatu da ekimena, bigarren urtez

## TTIPI-TTAPA

Martxoaren 12an hasi eta maiatzaren 31 bitarte gauzatu da 'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimena 45 herri eta eskualdetan. Ekimenak 12. edizioa du, eta iaz izan zuen arrakasta ikusita, bigarren aldiz eginen da Malerrekan eta Leitza, Areso, Goizueta eta Aranon. Euskaltzaleen Topagunea eta Malerrekako Mankomunitateko eta Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Euskara Zerbitzuak dira antolatzaileak. Ekimen horrek irakurzaletasuna bultzatu nahi

du, herritarrak euskarazko liburuak irakurtzera animatu nahi ditu, irakurtzearen alde atsegina azpimarratuz eta liburutegi publikoen zerbitzuen erabilera bultzatuz. Ekimenak parte hartzea saritzen du, liburuak erosteko abantaila ekonomikoak ematen ditu eta liburuak opari bihurtzera gonbidatzen du, hiru urratsetan: irakurri, gozatu eta oparitu.

Liburutegian jasotako erosketa-txartelak, euskarazko beste edozein liburu %35 merkeago erosteko aukera ematen du. Era berean, apirilean

eta maiatzean, 30 euroko baliario duen erosketa txeke bana zozketatuko du liburutegiko arduradunak, hilabete bakoitzean irakurketa fitxa bete dutenen artean.

## Maiatzaren 31 bitarte

Martxoaren 12an abiatu zen 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' ekimenaren 2018ko edizioa, eta maiatzaren 31n bukatuko da. Bi hilabete eta erdiko iraupena izango du egitasmoak liburutegietan, baina erosketa-txartelak liburu dendetan erabiltzeko epea ekainaren 15a artekoa izanen da.

Iaz bezala, Leitzako liburutegi publikoak eta Doneztebeko liburutegi publikoak parte hartzen dute ekimenean eta liburu dendei dagokienez, Malerrekan Doneztebeko Ostiz liburu dendak, Leitza eta Areso aldean, Maimur eta Astitz liburu dendek eta Goizueta eta Aranorako Hernaniko Elkar liburu dendak.

## Berroetako Asteburu Kulturala ekitaldi gainezka heldu da

Berroetako Asteburu Kulturala ate joka ari da dagoeneko. Martxoaren 24an 09:00etan hasiko dira ekitaldiak. Goizean Xabier Zabaletarekin bertako zuhaitz espezie eta bariatateak ezagutuko dituzte. 18:30ean, berriz, emakumeen gorputzen masifikazioari buruzko hitzaldia izanen dute. Iratxe Arretxeak, bertzeak bertze, sexu ustiapena helburu duen pertsonen salerosketa eta prostituzioa izanen du hizpide. 21:00etan Gure Ametsa elkartean afalduko dute. Biharamunean, 10:30ean, Nafarroako XXXI. Kirol Jokoen finala jokatu da. Asteburu kulturala hurrengo larunbateko, hilaren 31ko, Kantu Zaharren Afariarekin borobilduko dute. 21:00etan Santxotena eta Zabalak musikarien doinupean elkartean bilduko dira.


# DONEZTEBE

Hasi dira **MALERREKA PROMOZIOAK** promotorak egindako etxebizitzak eraikitzen.

Dagoeneko 2. faseko etxebizitzak salgai



Ez galdu aukera!

- ✓ Zure beharren **arabera finantziarioa**, Rural Kutxaren babes eta abalarekin 
- ✓ **B ziurtagiria**, isolamendu berriak, sistema arotermikodun berogailua (kontsumo baxua)
- ✓ **Material nobleetan** eraikia
- ✓ **Barne materialak aukeran**: egurra, azulejoak...
- ✓ Sukaldea eta lokala gurekin erosiz gero, **%11 aurreztuko** duzu

Informa zaitez

**EZKAIN ERAIKUNTZAK**  
Inzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**

**629 951 170**



**ZURE BEHARRIN ARABERA,**  
2 eta 3 logelako etxebizitzak.  
Zuk erran eta guk egin!

**58 m<sup>2</sup>koak:**  
sukaldea/egongela, 2 logela, 2 komun.

**74 m<sup>2</sup> eta 90m<sup>2</sup> ingurukoak:**  
3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun.

**135.000 €tik goiti**

**LOKALAK** ere baditugu,  
txoko, garaje edo  
lokal komertzialak egiteko



Joan den urteko mus txapelketan giro ederra izan zuten. FERNANDO ETXEBERRIA

## Bigarren seihilekoan eginen dituzten bidaiak lotu dituzte

Maiatzaren 17tik 30era bitarte Benidorm bisitatuko dute. Aitzinetik, sagardotegia eta mus txapelketa izanen dituzte

### FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko kideek, eginiko azken bilkuran, interes orokorreko gaiak izan zituzten hizpide. Bertzeak bertze, joan den urteko kontuak aurkeztu eta bigarren seihilekorako bidaia eta irteerak lotu zituzten.

### Urteko kontuak

Kontuei dagokionez, 490.893,97 euroko diru-sarrerak eta 489.074,71 euroko gastuak izaki, 1.819,26 euroko superabitarekin bukatu zuten urtea. Era berean, Nafarroako Kutxa Fundazioak emaniko diru-laguntza (16.000 euro) gorakada nabarmendu nahi izan zuten aitzineko urtean baino 6.000 euro gehiago eman baitzuten.

### Bidaiak

Bigarren seihilekorako bidaiei dagokionez, Arantzazu, Lezo, Lizarra eta Lodosa, Gasteiz, Zugarramurdi... bisitatzeaz gain, egun batzuetako egonaldia ere eginen dituzte: Benidormera, Teruelera, Canariasera... joateaz gainera, Mediterraneoko itsasbidaia eginen dute.

Maiatzaren 17tik 30era bitarte Benidormera joanen dira elkarteko 41 bazkide. Itsasbidaia, aldaketarik ez bada, irailaren 17tik 24ra bitarte eginen dute, eta Bartzelonatik abiatuko dira. Horrela, Napoles, Erroma, Florentzia, Niza eta Sete bisitaturik Bartzelonara bueltatuko dira. Kanarietako bidaia, berriz, azaroaren 6tik 15era bitarte eginen dute.

### Mus txapelketa eta sagardotegia

Bidaia eta ateraldi horiez gain, eguneko bestak ere ospatzen ari dira Arkupeak elkarteko erretiratuak. Martxoaren 15ean, erraterako, 36 bikote bildu ziren mus txapelketan. Ondotik, ehun lagunek bazkaria egin zuten. Hurrengo mus txapelketa apirilaren 26an jokatuko dute, Dantzarineko Euskal Kantu Zaharren bazkarian. Kasu horretan bi orduko txapelketa azkarra jokatuko dute.

Bien bitartean, martxoaren 22an elkarteko 322 kide Hondarribiara eta Urnietako Oia-  
nume sagardotegira joatekoak ziren.

## Erretiro-pentsio duina aldarrikatzeko manifestaziora joanen dira

Arkupeakeko zenbait erretiratut, erretiro-pentsioaren gorakada murrizta tarteko, elkarteko zuzendaritzan Iruñeko manifestaziora joateko proposamena egin dute.

Izan ere, Nafarroako pentsionisten %45ak hilabete bukaerara ailegatzeko zailta-

sunak ditu. Bertze %38k, berriz, laguntza behar izaten du.

Hori ikusirik, pentsio duinago baten aldeko aldarrikapenarekin bat eginen dute, martxoaren 17an Iruñeko Gaztelu Enparantzan. Elkarrekin autobusa antolatu du, joan-etorria errazteko asmoz.

## Aste Santuan hasiko dira Donejakue ibilbidea egiten

Aspaldixko buruan zerabilten Donejakue Bidea egiteko asmoa. Azken aldi honetan datak, garraioa, lotarako tokiak... bilatzen ibili ondotik, Aste Santuan hasita erabaki dute. Batzuek Iparraldeko bidea eginen dute; bertzeek, berriz, Frantziako.

## 8.000€ko diru-laguntza jubiloteka zerbitzurako

Arkupeak Elkarrekin Caixa-Banken eskutik 8.000 euroko diru-laguntza jaso du. Laguntza hori jubilotekaren kudeaketarako erabiliko da. Halako laguntzei esker, ikastaroak merkeagoak, eta beraz, partehartzaileagoak dira: «aurten 347 bazkide dabilta».



FERNANDO ETXEBERRIA

## Ehun kideetik goiti izan ziren Xabierren

Bederatziurrenaren harira, martxoaren 6an elkarteko 109 kide Xabierren izan ziren. Eguerdiko meza entzun ondotik, bertako jatetxean mahaiaren bueltan bapote jan eta tertulia ederrak izan zituzten. Arratsaldean dantzarako tartea izan zuten. 18:30ean abiatu ziren itzulerako autobusa hartuta.

## Iñigo Elizegi da Umore Onako presidente berria

Joan den urteko kontuak 5.652 euroko irabaziekin itxi zituzten eta zenbait lagun sartu dira zuzendaritza batzordean

### TTIPI-TTAPA

Umore Ona Elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen martxoaren 3an.

Lehenik eta behin 2017 urteko kontuak onartu zituzten. Urteko emaitza 5.652 euroko irabaziak izan ziren. Ondotik, 2018 urteko aurrekontua aztertu eta onartu zuten.

Gainera, komisioan bi urte lan egin ondotik, Oier Apezetxea, Auxtin Eskudero, David Goikoetxea, Juan Ramon Iribarren, Izaskun Makazaga eta Ekaitz Narbartek komisioa utzi dute eta beraien lekuan beste batzuzkartsu dira. Lehendakaria: Iñigo Elizegi, Idazkaria: Exteban Arozena, bokalak: Mari Karmen Ansa, Aitor Mendizabal, Joseba Mitxelena eta Luix Zugarramurdi.

Bazkide berrien onarpena ere egin zuten eta 5 bazkide berri sartu dira. Alde horretatik, aipatzekoa da, berriz ere gazte jendea elkartean sartzen hasi dela, azken urtetako dinamika irauliz.

Urteko batzarraren ondotik, komisio berriak lehenbiziko bilera egin zuen martxoaren



Iñigo Elizegi presidentea. ARTXIBOKOA

12an, ardurak banatzeko. Azken urteetako ekitaldiei eutsi nahi diete.

### Sagardotegira ateraldia eta txakolin-dastatzea herrian

Alde horretatik, aipatzekoa da Astigarragako Etxeberria sagardotegira ateraldia apirilaren 20an egingen dutela. Txakolindegira ez da ateraldirik egingen eta horren ordez, txakolin-dastatzea antolatu dute apirilaren 28rako.

## Umore Ona eta Igeldoko Lezkarri abesbatzek kontzertua eskainiko dute

### TTIPI-TTAPA

Martxoaren 24an, larunbatean 19:30ean kontzertua eskainiko dute elizan Igeldoko Lezkarri eta Goizuetako Umore Ona abesbatzek.

Lehenik, Umore Onak, Eneko Amundarainen zuzendaritzapean zenbait abesti es-

kainiko ditu, tartean, 'Agurra', 'Aritz adarrean' edo 'Maritxu-Andre Madalen'. Ondotik, Lezkarri, Nice Cresporen gidaritzapean kantatuko du. Bukatzeko, bi abesbatzek elkarrekin kantatuko dute eta eguna borobiltzeko mahai-inguruan bilduko dira.



FELIX LOIARTE

## Martxoaren 8ko bilkura eta afaria

Emakumearen Egunaren harira, martxoaren 8an bilkura egin zuten plazan 'Zutik emakumeak, hautsi gure kateak' zioen pankartarekin. Eguna borobiltzeko, ohiturari eutsiz 40 bat emakume bildu ziren Umore Ona elkarte afarian, sukaldariak eta zerbitzariak gizonetzkoak zizutuztela.



FELIX LOIARTE

## Pentsio duinaren aldeko elkarretaratzea

Herritar talde batek, jubilatuek gehienbat, kontzentrazioa egin zuen martxoaren 2an herriko plazan, pentsio duin baten eskaera aldarrikatzeko eta gobernua egin duen igoera murriztu salatzeko. Beraz, jubilatuek kalera atera dira euren eskubideen alde eta hainbat herritarren babesa jaso dute.

## Bertatik bertara formazio-saioak eskainiko dituzte

Elikadura katean parte hartzen dutenei zuzenduriko saio horiek martxoaren 22an hasiko dira, udaletxean

### JUAN MARI BARRIOLA

Leitzako eta Aresoko Udalaren, INTIAren, Cederna-Garalur Elkartearen, Bertatik Bertara dinamikaren eta LeitzEKOren eskutik, elikadura katean parte hartzen duten ekoizle, ostalari eta saltzaileei eskainiriko Bertatik bertara formazio-saioak eskainiko dira herrian, hiru ostegunetz: martxoaren 22an eginen dute lehendabiziko saioa; bigarrena, apirilaren 5ean; eta azkena maiatzaren 3an.

Saioak ongi antolatu ahal izateko, antolatzaileek izena emateko deia egin dute. Horrela bada, saio horietan parte hartu nahi dutenek bertakoproduktuakleitza@gmail.com helbidera idatzi beharko dute, beren izen-abizenak, kontaktua eta saio bat edo

gehiagora joanen diren adieraziz.

Martxoaren 22an, 15:30etatik 18:00etara elikagaien inguruko legedi higieniko sanitarioa eta fiskala izanen dituzte hizpide INTIAren eskutik, elikagai bakoitzaren salmenta-bideen betebeharreri errepikatuko dietelarik.

Bigarren saioan, apirilaren 5ean, Mirian Otxotorena eta David Ruiz, EHNEko kideak, izanen dira hizlariak eta legedi higieniko sanitarioaren malgutasuna eta salmenta zuzenaren legerari buruzko alderdiak landuko dituzte. Azkenik, maiatzaren 3an, arratsaldeko 16:30etatik 19:30etara bitarte, Mirene Begiristain, EHUko irakasleak, salmenta bide laburrei buruzko kontuak mahairatuko ditu.

## Ipar Martxari buruzko ikastaroa eta kantu bazkaria izan dituzte

Martxoaren 17an kirola eta pesta uztartzeko aukera izan zuten herrian. Ekitalde batean zein bestean parte-hartze handia izan zen.

Goiz osoan, helduentzako Ipar Martxari buruzko oinarritzko ikastaro praktikoa izan zuten. Leitzan izaniko harrera baloratu ondotik, beste saioen bat egiteko aukera egon daiteke. Ipar Martxa Finlandia jatorri duen eta iraupen eskian oinarritua dagoen kirola da, elurrik gabe egiten dena. Arratsaldean, berriz, joan den urteko arrakasta ikusirik, Au-

rrera Dantza Taldeak II. Kantu Bazkaria izan zuten. Ospakizuna Erleta eskolako jangelan egin zuten. Anjel Mariezkurrena, Aitor Ibarra eta Franzisko Santxotena alaitu zuten giroa eta abeslari, dantzari eta gonbidatu bereziak izan zituzten. Bapo bazkaldu ondotik, kantu eta kontu artean, ilunabarrera arte luzatu zuten bazkaria eta luntxa dastatuz bukatu zuten ospakizuna. Bazkarira joan zirenei kantu zaharren liburuxka eman zitzaion, oroigarritzat.

## 9-18 hilabeteko haur eta familientzat Familien Txokoa eskainiko dute

Martxoaren 13az geroztik, abian da Familien Txokoa egitasmoa herrian. Familien Txokoak 9-18 urte bitarteko haur eta beren familiek elkar laguntzea, harremanak sendotzea (masaje, kanta edo jolasen bidez) eta kezka edo intereseko gaiak jorratzea du

helburu. Hilabete behin Leitzako udaletxean bilduko dira, Virginia Eraso eta Edurne Arrazubiren, gizarte langileen, gidaritzapean. 11:00etatik 12:30era bitarte izanen dute hitzordua eta izena eman nahi dutenek Gizarte Zerbitzuetara deitu beharko dute.



## Plaza emakume langilez bete zen M8an

Emakumeen Nazioarteko Egunean Leitzan elkarretaratze jendetsua eta aldarrikapen ozena egin zituzten herrian. Ez da parte hartutako ekimen bakarra. lilatoian ere izan dira herritarrak, eskolako haurren antzerkia eta generoa eta kontsumoari buruzko hitzaldia ere izan zituzten.



## Altsasuko gazteekiko elkartasun handia

Altsasuko gazte presoek elkartasuna adierazteko #AltsasukoakASKE lelopean antolaturiko hirugarren etapa herrian izan zen martxoaren 10ean. 50 autok eta ehunka lagunek karririk aldarrikapen-pankartzetaz bete zituzten, harrera goxoa eginez eta salda eta pintxoak dastatu zituzten.



Lasterketaren ondotik parte-hartzaileentzako luntxa eskainiko da.

## Herri Kroserako izen-ematea laster irekiko dute

Benjaminak 800 metroko ibilbidea egingen dute, gaztetxoek 2.250 metrokoa eta maila gorenak 4.500 edo 9.000koa

### JUAN MARI BARRIOLA

Urteroko ohiturari eutsiz, apirilaren 21ean ospatuko da Aurrera Kirol Elkarteak antolatutako Leitzako XL. Herri Krosa. Izena-ematea, ordea, Aste Santuaren bueltan irekiko dela jakinarazi dute eta lasterketa egunera bitarte egonen da zabalik. Lerro hauek idazterako orduan zenbait kontu lotzear zeudenez, hurrengo zenbakietan eskainiko zaizkizue epeei buruzko xehe-tasun gehiago.

### Izen-ematea eta prezioa

Epea zabaltzen denean, interesa duten parte-hartzaileek [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean eman beharko dute izena.

Apirilaren 21a baino lehen izena ematen dutenek 10 euro ordaindu beharko dituzte; Aurrerako bazkide direnek, berriz, merkeago izanen dute (8 eurotan). Azken orduan animatzen direnentzat, egunean bertan ere izena emateko aukera eskainiko da, 15 euro ordainduz. Aurrerako kideek, aldiz, 10 eurotan izanen dute.

### Kategoriak

Hiru kategoriatan banatuko dira lasterkalariak: kategoria absolutua, benjaminak eta gaztetxoak izanen direlarik. Hiruak Leitzako Plazatik abiatuko dira, eta itzulia egin ondotik, toki berean bukatuko dute ibilbidea.

Kategoria absolutuko korrikalariak 17:30ean abiatuko dira. Bi aukera izango dituzte aukeran: 4.500 metro (itzuli bat) edo 9.000 metro (bi itzuli).

Aurretik, ordea, benjamin eta gaztetxoentzako saioak izanen dituzte. 17:00etan Benjaminak, hau da, 2009-2018 bitartean sortutakoek, 800 metroko ibilbidea egingen dute. 17:00etan, berriz, gaztetxoek, 2002-2008 urtean jaiotakoek, hartuko dute lekukoa. Azken horiek 2.250 metroko ibilbidea egingen dute.

### Sari banaketa eta luntxa

Herri Krosa bukatzean irabazleei sariak banatuko dizkiete. Eta sari-banaketa ondotik, irabazleentzat ez ezik, parte-hartzaile guztientzat luntxa ere eskainiko dute.

## Bertatik bertara formazio saioak lagundu dituzte

Elikadura katean parte hartzen dutenei zuzenduta, Bertatik Bertara formazio saioak egingo dituzte martxoa, apirila eta maiatzean Leitzan. Aresoko Udala da laguntzaileetako bat eta 750 euroko ekarpena egin du egitasmoari bultzada emateko.

## Udalak herri lanak egiteko bi langile kontratatuko ditu

Apirilean bi langile kontratatuko ditu Udalak. Sei hilabeteko kontratua izango da, %75eko lanaldiarekin. Bi langileetako bat emakumezkoa izatea adostu dute. Interesa dutenek apirilaren 2rako Donetztebeko Enplegu Bulegoan izena emanda egon behar dute.



JAIONE OLAZABAL

## Emakumearen Egunarekin bat eginez

Martxoaren 8ko Emakumearen Egunaren harira, Nazabal eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek mural berezia osatu zuten, hainbat emakumeren aurpegiekin esku bat osatuz. Horretaz gain, elkarretaratzea ere egin zuten kamiseta edota lepoko zapi moreak jantzita.



JAIONE OLAZABAL

## Usadio zaharrak kimu berriak sortzeko

Aspaldiko ohiturarekin segiz, zuhaitz landaketa egin dute Urteagako parajeen Guraso Elkarteko guraso eta haurrek. Denera 50 bat landare inguru landatu dituzte. Aurretik, Amazabalgo ikasleek, ikasbidairako diru-laguntza bati esker 200 landatu zituzten. Mendiak biziberritu dituzte!

## Xorroxin ur-jauziaz lanketa aurkeztu dute Tolosan

Baztango Udalak eta Erratzuko herriak eraman dute Aktibatu-Natura Turismoa eta Iraunkortasunaren Jardunaldira

**TTIPI-TTAPA** ERRATZU  
Baztango Udalak eta Erratzuko herriak Xorroxin ur-jauziaren ingurua antolatuzeko garatutako esperientzia parte-hartzailea aurkeztu dute Aktibatu-Natura Turismoa eta Iraunkortasunaren VI. Jardunaldian. Jardunaldia martxoaren 7an Tolosan burutu da, eta natura turismoaren inguruko hainbat gai jorratu ditu, zenbait esperientzia aurkeztuz. Maite Iturre Baztango zinegotziak eta Maider Nabarro Erratzuko herritarrek 'Herriarren parte-hartzea turismoaren agente bultzatzaile bezala' izeneko atalean aurkeztu zuten 2017an zehar Erratzuko garatutako esperientzia aberagarria.

Xorroxin ur-jauziak gero eta bisitari gehiago erakartzen dituela eta honek herrian ara-

zoak sortzen dituela ikusirik, Baztango Udalak lanketa berezituari ekin zion, Erratzuko herriari protagonismoa emanez. Nafarroako Gobernuako zonaldeko teknikariak lagundurik, ur-jauziaren inguruaren antolamenduari buruzko azterketa egitea esleitu zion Bizibiziki enpresari. Azterketa horren oinarria, pleguen arabera, erratzuarren parte-hartzea izan behar zuen, turismo interesgune honek sortzen dituen arazo, aukerak eta balizko irtenbideak identifikatu eta lantze aldera.

Hainbat hilabetetan bilerak burutu zituzten, ibilbide berri bat landu zen eta proba pilotoa burutu zen herrian: erratzuarren parte-hartzea nabarmena izan zen (errate baterako, 80 lagun inguru izan ziren bileretan, eta 60 batek parte



Xorroxingo ur-jauziaren inguruko lanketa aurkezten Tolosan. LAURA ELIZAGOIEN

hartu zuten proba pilotoa). Aitzinerat begira lanketa segitzeko asmoa dago, betiere modu parte-hartzailean.

**Herritarren parte hartzeak erakarri ditu antolatzaileak**  
Hasiera-hasieratik Baztango Udalak turismo afera honen lanketa herritarren parte-hartzean oinarritzea erabaki izanak eta Erratzuko herriak izandako inplikazio handiak Aktibatu jardunaldiaren an-

tolatzaileen atentzioa erakarri dute, eta hortaz, nabarmentzeko esperientzia bezala aurkeztu nahi izan dute, Lizarrako eta Ingalaterrako Todmorden herrikoekin batera. Baztandarren aurkezpenak gainera, interes handia sortu du turismo-sektoreko agenteei zuzendutako eta garapen iraunkoraren inguruko topagunea eta hausnarketa gunea izan diren jardunaldien parte-hartzaileen artean.

## Aroztegiako obrak edozein momentutan has daitezkeela jakinarazi dute

**TTIPI-TTAPA** LEKAROZ  
Palacio De Aroztegia SL Enpresak Nafarroako Gobernuaren baimen guztiak lortu dituela eta obrak edozein momentutan hasten ahal ditzutela ohartarazi du Aroztegia eta gero zer? proiektuaren kontrako taldeak. «PSISa onartzen denetik hasita, enpresek bi urteko tarteak dute obrekin hasteko. Data hori pasaturik PSISaren beharra berrikusten ahal da, baina hontakoan, Nafarroako Gobernuak berriz ere bere borondate politiko eza agertu du aukera hau baz-

tertuaz», salatu dute. Halere, lanak geldiarazteko asmoarekin segituko du Aroztegia eta gero zer? plataformak.

### UPNren salaketa

Afera honen inguruan, «xaxatze-kanpaina» salatu du UPNko udal taldeak. Herrian jarritako pankartekin eta sare sozialen bidez hedatutako bideoekin «betikoek betiko bitartekoekin obrak geldiarazi, proiektua boikoteatu, herritarrek izutu eta proiektuaren sustatzaileak presionatu» nahi dituztela dio UPNren idatziak.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

## Sonia Lopez, 40 urtez liburuzain

Sonia Lopez Igartuak 40 urte bete ditu liburuzain izaten martxoaren 1ean. Aitzakia horrekin, ezusteko omenaldi xalo bezain hunkigarria eskaini zioten. Alkateak '40 urte liburutegian' idatzia zuen zapia jarri zion. Aurreksua dantzatu zioten eta Mari Cruz Goñik lore-xorta eman zion.





Etxebizitzak biziberritzeko aukeren inguruan solastuko dute ortzirale arratsaldean Arizkunenean. ARTXIBOKO ARGAZKIA

## Etxebizitzen biziberritzeari buruzko gogoetaldia prest dute

Udalak eta Eusko Ikaskuntzak antolatu dute martxoaren 23an, ortziralean 19:00etan Arizkunenea Kultur Etxean

### TTIPI-TTAPA BAZTAN

Baztango etxebizitzaren biziberritzea: arazoak eta irtenbideak izeneko gogoetaldia antolatu du Baztango Udalak, Eusko Ikaskuntzaren laguntzarekin, martxoaren 23an, ortziralean 16:00etatik 19:30era Baztango Balleko Etxeko Batzar Aretoan. Jardunaldi honetan Baztango eta inguruko etxebizitza hutsek duten problematikaz eta hauek biziberritzeko aukerez solastatuko dute. Horretarako, lehenik arazo zehatz honen gibelean dagoen hausnarketa zabalago batera joko dute, hau da, landa inguruneak biziberritzeko erronka sozio-ekonomiko eta demografikoen gainekoa. Ondoren, egoera hauei aurre egiteko egun dau den tresna eta politika publiko zehatz batzuen berri izanen dute. Azkenik, ikuspegi arkitetkoniko batetik, etxebizitzaren biziberritzerako aukera eta oztopenen inguruan arituko

dira. Akabailan, entzulegoari gonbitea luzatuko zaio euren kezka eta iritziak plazaratzeko.

### Egitaraua

- 16:00-16:15 Irekiera. Joseba Otondo, Baztango alkatearen eskutik.
- 16:15-17:00 Euskal Herriko landa-giroko geografia, demografia eta etxebizitza. Julen Landa, Gaindegia.

- 17:00-17:45 Etxebizitzaren errehabilitaziorako eta alokairurako proposamenak eta laguntza publikoak. Arantxa Arregui Alberro, NASUVINSA eta LURSAREA.
- 17:45-18:15 Atsedenaaldia.
- 18:15-19:00 Baztanaldeako arkitektoen mahai-ingurua.
- 19:00-19:30 Eztabaida: galderak eta iritziak.
- 19:30 Itxiera.

### Glisofatoari buruzko hitzaldia EHNEren eskutik

Baztango Agroekologia Eskola Herritarraren baitan 'Glisofatoa-Rondup, inguruaren pozoiketa eta pertsonen minbizia' solasaldia eskainiko du Paul Bengoa EHNEko teknikariak martxoaren 22an, ortzegunean 19:30ean Arizkunenean.

### Bertako zuhaitzak ezagutzeko ibilaldia Berroetan

Bertako zuhaitz espezie eta bariatateak ezagutzeko ibilaldia egingen dute martxoaren 24an, larunbatean 09:00etan abiatuta Berroetan. Xabier Zabaleta izanen dute gidari. Berroetako herriak eta Gure Ametsak antolatu dute Agroekologia Eskola Herritarrean.

### Sarasate Bizirik kontzertua-dokumentala

'Sarasate Bizirik' kontzertua-dokumentala eskainiko dute martxoaren 25ean, igandean 19:00etan Arizkunenean. Ikus-entzunezkoaren ondotik, Quartuor Europa musika taldeak emanaldia eskainiko du. Sarrera doan izanen da lekuak bete arte.

**zergalan** | **asegi**  
asesores y consejeros de empresa  
empresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

# Udaberriko Feria apirilaren 6an ospatuko dute

Hogeigarren edizioa beteko duen Ahari lehiaketaz gain, goiz eta arratsaldean hainbat ekitaldi egingen dira

## TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Aziendak, artisau lanak eta etxeko produktuak etxetik edo baserritik karrakara ateratzeko, apirilean Baztanen egingen den hitzordu nagusia gainean da. Apirilaren 6an, hilabeteko lehen ortziralean, egingen da Udaberriko Feria Elizondon, Udalak eta Cederna-Garalur erakundeak antolatuta.

10:00etan azienda feria izanen da Merkatu Plazan. Ahari lehiaketaren hogeigarren edizioa ere egingen da. 10:00etatik 13:30era artisautza eta bertako produktuen azoka paratuko da Merkatuko Plazan. 11:00etan txistulariak ariko dira karrakaz karraka. 11:30etik 13:30era haurrentako tailerra izanen da. 12:00etan Baztango dantzari ttikiek saioa eskainiko dute, 12:15ean urteko ardi gasnaren mozketa ekital-

dia eta 12:30ean bertako produktuen dastatzeko aukera izanen da. 13:00etan ahari lehiaketaren sari banaketa egingen da Merkatuko Plazan.

## XX. Ahari lehiaketa

Aitzineko urteetan bezala Baztango Ahari Lehiaketa egingen da eta aurtengo hogeigarren edizioa izanen da. Baztango latxa arrazako buruek parte hartzen ahal dute eta sariak bi ataletan banatuko dira: hiru mutur gorriendako eta bertze hiru mutur beltzendako. Bi kasuetan, lehenengo saria, kaiku bat eta 75 euro dira; bigarren saria, 50 euro eta hirugarren saria, 30 euro. Parte hartuko duten artzainek 15 euroko ordaina jasoko dute eta ahari buruak aurkezten dituzten artzainei bazkaltzeko gonbidapena ere luzatuko zaie.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Emakumeen frontenis txapelketa

Bigarren mailan, Elbeteko Itxaso Iturregik eta Iruritako Saioa Dendarietak 30-22 irabazi zieten Narbarteko Miren Itxaso Arretxea eta Maite Iriarteri. Lehenengo mailan, Iruritako Nuria Garate eta Edurne Argainek 30-23 irabazi zieten Arizkongo Amaia Iñarrea eta Maitane Etxeberriari.


## Berrikuntza, Sormen eta Ekintzailtza Eguna Elizondoko Lanbide Eskolan

### TTIPI-TTAPA BAZTAN

Berrikuntza, sormen eta ekintzailtzarako jardunaldien 7. edizioan, 'Etorkizuna lideratzeko ideiak' lelopean, martxoak 7an eskualdeko Lanbide Heziketako ikasleei zuzendutako jardunaldia antolatu zen Elizondoko Lanbide Eskolan.

Eskualdeko 69 ikaslek parte hartu zuten antolatutako hiru tailerretan: Marketing personala, Aurkitu zure elementua eta Ekintzailearen pokerra.

Ekimen horren bitartez, lanbide heziketako ikasleek, lehendabiziko kontaktua izan dute enpresa munduarekin.



MAITANE MARITORENA

## Haurrentako jokoak margotuak Anizen

Gizarte zerbitzuetako langileek zola hainbat kolorez pintatu eta jokoak marraztu dituzte Anizko haurrek, jostetan ari direlarik, aukera gehiago izan dezaten. Tizarekin aritzen ziren margotzen jokoak egin ahal izateko orain artio. Langile hauek egindako lanari esker, aski polit gelditu da frontoia.



MAITANE MARITORENA

## Aniz eta Berroetakoak sagardotegian

Hondar urteetan bezala, aniztar eta berroetarrek martxoko lehenbiziko larunbatean sagardotegia izan zuten Hernanin. Ederki jan eta edan ondotik, Imanolen trikitixa joaldiak bazkalondoan animatu eta bestak Hernanin jarraitu zuten. Batzuk taxian eta bertzeak autobusean bueltatu ziren.



Haziak elkarbanatu zituzten Zigara hurbildu zirenek. UTZITAKO ARGAZKIA

## Haziaren Eguna arrakastatsua izan da Zigan

Haziak elkarbanatzeaz gain, Jakoba Errekondok solasaldia eskaini zuen martxoaren 10ean

### TTIPI-TTAPA

Zigan egin duten aurtengoan III. Haziaren Eguna martxoaren 10ean, Zigako Herriaren eta Hazitik Hozie elkartearen artean antolatuta.

Herriko frontoian hazien trakerako mahaiak paratu zituzten eta herriko haziak eta bertze herrietatik etorritakoenak trukatu ahal izan zituzten: ilarra, artoa, kalabaza, eguzkilorea... Ondotik eskolan egin zen mintzaldian Jakoba Errekondok aipatu bezala haziak ura ekarritakoak izan behar dute, hau da, goragotik etorri behar dute, toki zailagoetakoak,

ondotik aisago emanen baitute. Horrela, Beartzunen 450 metroan egindako eta hazien trakerat ekarritako artolanda-ko arto haziak bereziki aipatu zituzten.

Gainerakoan Errekondoren elektaldian ilargiaren eraginaz aritu ziren, txertaketaz, lurra iraultzeaz... Akaberan Glisofato eta Rondup bezalako herbizidez mintzatu ziren. Errekondok aipatu zuenez minbiziasortzen duten pozioiak dira eta herbizida horiek erretako bazterretako maraguri eta mazukreak ez jateko ohar- tarazi zuen.

## Bortz emakumeren margolanak ikusgai Arizkunenean

Martxoaren 16an egindako inaugurazioan ireki eta apirilaren 8ra bitarte ikusgai izanen da Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean bortz emakumeren margolanak biltzen dituen 'Emociones en color' (Emozioak koloretan) margo erakusketa. Zehazki, Isabel Olondriz, Mila Esteban, Mary Puy Luquin, Ananda G.D. eta Blanca Jimenez margolarien artelanak ikusteko aukera izanen da, astegunetik 17:00etatik 20:00etara eta besta egunetik 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

## Musika eta merkatua hilabete bukaerarako

Baztango Udal Musika Eskolako ikasleen eskutik entzunaldiak izanen dira martxoaren 26an (17:00etan), 27an (17:00etan) eta 28an (16:30ean) Arizkunenea Kultur Etxean. Baztango Udal Musika Eskolako antolatutako emanaldiak. Martxoaren 30 eta 31n, berri, Elizondoko plazan, bertako produktuen merkatua antolatu dute Baztango artisauek eta Baztango zapoak elkar- teak. Ortziralean eta larunbatean 11:00etatik 19:00etara produktuak dastatzeko eta erosteko aukera izanen da.



ELIZONDOKO ESKOLAK UTZIA

## Elizondoko eskolak Zuhaitzaren Eguna

Elizondoko Ikastetxe Publikoko Guraso Elkarteak arbolaren eguna antolatu zuen. Eskolako familia aunitzek Aintzialdeko parajea, zenbait motatako 50 zuhaitz landatu zituzten: haritzak, sagarondoak, gaiztainondoak eta lizarrak. Ondotik hamaietako ederrarekin akitu zuten besta.

**LARRALDEA**  
eta  
**LINDURRENBORDA**  
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea  
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317  
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T. 948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

**HARRI LAN, S.L.**  
ESTRUKTURALAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Ziga eta Zigaurreko saneamendu, zolaberritze eta argiteri lanetara 437.000 euro bideratuko dituzte. ARTXIBOKOA

## 8.384.873 euroko aurrekontua onartu du Balleko Etxeak

EH Bildu, Baztango Ezkerrak eta Baztan Auzolanean taldeek alde bozkatu zuten, UPNk aurka eta Geroa Bai abstenitu zen

### TTIPI-TTAPA

8.384.873 euroko aurrekontua onartu du Udalak, martxoaren 14an egindako bilkuran. Horren barnean Udal Ikastolaren eta zahar-etxearen aurrekontuak daude, 680.261 euro eta 136.315 eurokoa, hurrenez hurren. Kontuek EH Bilduren, Baztango Ezkerraren eta Baztan Auzolanean aldeko zazpi bozka izan dituzte. UPN-ren lau zinegoziek aurka bozkatu eta Geroa Bairen bi zinegoziek abstentzioa egin dute.

Datu aipagarri gisa, Tokiko Inbertsio Planarengatik aurtengo aurrekontuetako inbertsioen atalak izan duen iguera nabarmena izan da, denera 1.310.000 eurokoa; hortik, 440.000 euro Udalaren gain eta gainerakoa diru-laguntzen bidez kudeatuko da. Konparaziora, 2017an inbertsionarako 339.000 euro izan ziren.

### Inbertsio nagusiak

Inbertsioen artean Oronoz-Mugairin egingen den eskualdeko Lanbide Heziketako Ikastetxea egin ahal izateko izanen da, lurren kalifikazio aldaketa burutzeko 7.260 euro

bideratuko dira. Tokiko Inbertsio Planeko proiektuen artean Amaiurko Txisteneko Iturritik ur-biltegitrat eta ur-biltegitik baserrietarat ura eramateko 201.500 euro bereizi dira; Irurritako ur-biltegiaren 4. faserako, berriz, 154.900 euro. Bertzalde, Azpilkueta eta Zuaztoiko saneamendu, hornidura eta zolaberritzearen proiektuak idazteko eta Sumutsuko eta Urruxkako bideen proiektuak idazteko 79.300 euro gordeko dira; Ziga eta Zigaurreko saneamendu, zolaberritze eta argiteri lanak egiteko, berriz, 437.000 euro.

Gainerakoan Elizondoko eskolaren teilatua berritzeko 30.000 euro onartu dira eta kiroldegiko teilatua konpontzeko bertze 18.500 euro. Modu berean, urtero bezala mendilantarako kontu-saila onartu da; aurtengoa 67.800 eurokoa.

Bertze inbertsio aipagarria bideak zaintzeko erosiko den erretroindusgailu edo erretroeskabadora izanen da. Oraingoak urte aunitz ditu eta urtero matxura garestiak izaten ditu. Tresna erosteko

150.000 euro partida sortu da. Baztanek 1.200 kilometro bide baino gehiago du eguneroko bizitzarako aski inportanteak direnak eta horiek behar bezala mantentzeko aipaturiko makina beharrezkoa da.

Bertzalde, Udalaren zorra 4.773.000 eurokoa izanen da, 2018ko diru-sarrera arrunten %63,91a, legeak finkatzen duen gehienezko %110etik urrun. Orain bederatzi urte Udalaren zorra 9 milioi euro baino gehiagokoa zen. Akitzeko, gastu arruntaren atalean ez da aldaketa aipagarri izan.

UPN eta Geroa Bai udal taldeek aurrekontuak aztertze denbora gutti izan dutela eta «alde bakarreakoak» direla salatu dute.

## Martxoaren 10ean ateak ireki ditu Baztan Abentura Park-ek Elizondon

### TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Martxoaren 10ean ireki zituen ateak Elizondoko Beartzun auzoan Baztan Abentura Park abentura parkeak. 2015ean FITUR-en Parke onenaren lehenengo saria lortu zuen. Parkea Beartzungo arroilaren inguruan dago eta 4 urtetik goitiko haurrentzat egokitutako aktibitateak eskaintzen ditu. Zortzi urtetik goitikoek 200 metroko Vía Ferrata egiteko aukera dute. Parkeko bertze ekintza bat lau tirolina erraldoien bidez Beartzungo arroila gurutzatzean datza, 220-280-300-450 metroko luzera eta 120 metroko altuera dituzten tirolina hauetatik ikuspegi bikaina dago (8 urtetik goitikoendako tandem eginez).

Eta arras ausartak direnentzat 100 metroko pendulo salto erraldoia dago (Zubi saltoaren gisakoa). Jarduera hau nagusi eta 16 urtetik goitikoendako prestatua dago (gurasoen baimenarekin).



JUAN MARI ONDIKOL

## Altsasuko gazteekiko elkartasuna

Altsasuko gazte presoek elkartasuna adieraziz manifestazioa egin zen Elizondon martxoaren 10ean, gurasoek antolatutako hirugarren etapa gure ingurutik pasatzen zela baliatuz.

Balleko Etxeak elkartasuna adierazi eta Iruñean, apirilaren 14an egingen den manifestazioan parte hartzeko deia egin du.



Berako Toki Ona institutukoek martxoaren 8an osatutako irudia. UTZITAKO ARGAZKIA



Martxoaren 8ko eguerdia Elizondon. ONDIKOL

## Oroimenean geldituko den egun jendetsua eta morea

Eskualdeko ehunka emakume kalera atera dira aurtengo martxoaren 8an

**TTIPI-TTAPA** ESKUALDEA Berezia eta historikoa. Halaxe atera zen aurtengo martxoaren 8a. Inoizko mobilizaziorik handiena egin zen Euskal Herrian, baita gure eskualdean ere. Goizean goizetik mugitu ziren emakumezkoak, gazteak eta helduak; eguna argitu orduko mantalak zintzilik agertu ziren hainbat etxetako balkoitan, kolore morea nagusitu zen han eta hemen, eta Euskal Herriko mugimendu feministak plantorako egin dako deialdiarekin bat egin zutenak ere aunitz izan ziren. Hainbat lantegi eta etxetan, emakumeen greba babestuz, gizona greba hartu zuten euren gain ardura. Ekitaldiz hornitutako eguna izan zen: elkarretaratzeak egin ziren herri aunitzetan, manifestazio jendetsuak Elizondon eta Lesakan, emakumezkoen tertuliak Arantzan eta Lesakan, lilakatea Beran, emakatea Elizondon... Gisa aunitzetako ekitaldiak antolatu zituzten eta guztiak ere arrakastatsuak eta parte-hartzaileak izan ziren. Egun osoko ekitaldiei eta greba egunari bukaera borobila

emateko, kafe-tertulia eta Baztan-Bidasoaldeko manifestazio jendetsua egin zuten Lesakan. Sekula baino moreagoa eta jendetsuagoa atera zen aurtengo martxoaren 8a; eskualdean, aurrekaririk gabeko eguna.

**Mendi itzulia Bortziritan** Ohiturari segituz, martxoaren 11n, Bortziritako Emakumezkoen Mendi Itzulia egin zuten Etxalarren. Honetan ere hainbat izan ziren parte hartu zuten emakumezkoak.

**Ekitaldi gehiago** Martxoaren 8aren harira, oraindik ekitaldi gehiago ere izanen dira. Martxoaren 23an Erratzun ipuin-kontalaria ariko da, 17:30ean; hilaren 24an, 'Vini, Vidi, Vinci' antzezlan ikusteko aukera izanen da Berako Kultur Etxean, 19:00etan; egun berean, 'Ni ta punto' kontakizun ilustratua eskainiko dute Iturengo Udaletxeko ganbaran, 18:30ean; hilaren 28an, Leitzako eskolako jangelan, eskolako genero tailerrean landutakoaren emanaldia egingen dute 11:00etan.



Martxoaren 8ko eguerdia Leitzan. ESTITXU ASTIBIA



Martxoaren 8ko ilunabarrean Lesakan egindako manifestazioa. UTZITAKO ARGAZKIA



Bortziritako Emakumezkoen Mendi Itzulia, martxoaren 11n. EDURNE ELIZAGOIEN

# URDAZUBI



Virginia Imazek irriz lehertarazi zituen ikusleak bere antzezlanean. IÑIGO IMAZ



Hogei bat emakume joan ziren Astigarragako Petritegi sagardotegira. UTZITAKOIA

## Emakumeen Eguna antzerkian eta sagardotegian

Ugarana elkarteak antolatuta, Virginia Imazen 'Sex o no sex' antzezlanaz ikusi zuten eta Astigarragako Petritegira joan ziren

### IÑIGO IMAZ

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldien baitan, martxoaren 4an Urdazubiko Kultur Etxean Virginia Imazen ekitaldia antolatu zuen Ugarana Emakume Elkarteak. Imazek 'Sex o no sex' antzerki-lana eskaini zuen, emakumea eta sexuaren inguruko galderak, kezak eta bizipenak mahai gainera ekarri. Ikusleak irriz lehertarazi zituen eta txalok oihartzun handia eragin zuten herrian. Izan ere, ehun lagun inguru bildu ziren Kultur Etxean, Imazek berriro ere Xaretako

herrian aurkeztutako antzerki-lan ikusgarriaz gozatzeko.

### Sagardotegian

Aipaturikoa ez da Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira herritarrek eginiko ekitaldi bakarra izan. Ugarana emakume elkarteak martxoaren 8a biharamunean ospatu zuen, Astigarragako Petritegi sagardotegian. Hogei bat emakumek bildu ziren Urdazubiko Salbatore Plazan elkartearen autobusean Gipuzkoarat abiatzeko. Argazkiak ederki islatzen duenez, giro ederra izan zuten otorduan eta ondotik.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Villares bikain Gabiriko Rallysprintean

Mattin Villares herriko auto gidaria eta Jon Zozaia kopiloto goizuetarra bikain ibili ziren martxoaren 4an Gabiriko hogeigarren Rallysprintean. Renault Clio Maxi autoarekin irabazle izan ziren Klase 5 kategorian eta bigarren sailkapen orokorrean.



Kimaketak | Mantentze-lanak  
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea  
Ureztatze Sistema Automatikoak  
Paisajismoa



T. 619 418 683 | LESAKA | johntelletxea@hotmail.com  
www.telletxealorzaintza.com



**MARTIKO**

*Dasta ezazu!*

DENDA ORDUTEGIA Astelehenetik-ortziralerara 08:00-17:00  
**Martiko.** Zalain Ind z/g. 31780 Bera. Nafarroa  
Tel: 948 625 016 · www.martiko.com · martiko@martiko.com



Plazako elkarretaratzean giro ederra izan zuten. JOSEBIÑE AGIRRE

## Arrakasta polita izan du Emakumearen Eguneko herriko elkarretaratzeak ere

41 emakume elkartu ziren plazan, herriko emakumeen %37a eta jubilotekako adinduenek Azketa jatetxean bazkaldu zuten

### JOSEBIÑE ETA KORO

Martxoaren 8ko Emakumearen Eguneko ekitaldiak historikoak izan ziren Euskal Herri osoan, eta gurean ere gauza bera gertatu zen. Eguerdian, 12:00etan, elkarretaratzea deitua zen, eta arrakasta polita izan zuen, 41 emazteki elkartu baitziren. Kontutan hartuz herritarretatik 110 bat emakumeak direla, horrek erran nahi du %37a elkarretaratzerat atera zirela. Marka polita, dudarik gabe, araberan berdintzeko zaila.

Aipatzekoa da besta giroa nagusitu zela elkarretaratzean,

kantari aritu baitziren eta txanpainakin ospatu baitzuten beraien eguna. Hortik lekura, jubilotekako 13 adinduenek Azketa jatetxean ospatu zuten egun eder hau.

### Heriotza

Gan den udan hil zitzaigun Maddi Hardoi, ordura arte herriko adinduena zena, 100 urterekin. Ordutik Aguxtin Amorena Saintdemont genuen herriko zaharrena, eta hau ere galdu dugu, gan den martxoaren 8an hil baitzitzaigun 98 urterekin. Doluminak familiari eta lagunei.



Elkarretatzeko zaharrena, Ixabel (91 urte), eta Kira (6 hilabete). JOSEBIÑE AGIRRE

## 'El cristal y la bruja' liburua aurkeztu dute Sorginen Museoan

### JOSEBIÑE ETA KORO

Sorginen Museoa egin zenean, bertze gisako funtzioak betetzeko ere pentsatu zen, Kultur Etxe baten gisakoak, erraterako. Hori dela eta, gan den martxoaren 3an, Jose Maria García idazlearen 'El cristal y la bruja' liburuaren aurkezpena egin zuen Carmen Larraoetxea kazetariak.

Batez ere abentura eta fantasiako liburuak gustuko dituzten gaztetxoei zuzenduta den eleberria da, eta eskola-jazarpena sufritzen ari diren nerabe batzuen istorioa kontatzen du.

**ARMUA** JATETXEA

T. 948 599 131  
Zugarramurdiko errep. 3 km URDAZUBI

**BEKO**

LOREAK ETA LANDAREAK  
Frain Auzoa · LESAKA  
T. 948 637 826

**VENTA PEIO**  
GEHIAGO EMATEN DIZU

**BERA** (administraritzita) 31780 Bera  
**IBARDIN** 31780 Bera  
**BEHOBIA** 20305 Iruñ  
**DANTXARINEA** 31712 Urdax  
**LUZAIDE** 31860 Luzaide

**EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE**  
\*Abenduaren 29ª eta utarrilaren 1ª izan ezik

**Landibar**

TEL. 902 210 800 / [www.venta-peio.com](http://www.venta-peio.com)

## Dena prest Idazleen Biltzarraren 35. ediziorako

Auxtin Zamora eta Jean Claude Larronde sarituko dituzte apirilaren 1ean eta 2an iraganen den biltzarrean

### TTIPI-TTAPA

Joan den urtean bezala, aurtien ere bi egunez iraganen da Idazleen Biltzarra, apirilaren 1ean, igandea, eta apirilaren 2an, astelehena. Bietan ere eskaintza zabala prestatu dute 35. edizio honetarako. Hitzordua kiroldegian da.

### Apirilak 1, igandea

15:00etan irekiko dute biltzarra, eta Sarako eskola publikoa, Azkaingo ikastola, Senpereko ikastola eta Donibane Lohizuneko Xantako Kolegioko lanak ikusteko aukera izanen da. Ondotik hainbat libururen aurkezpenak egingen dituzte: 16:20etik 17:30era Allande Etxart, Maddi Zubeldia, Anne Frucher, Roger Geyer eta Pirre Accodek beraien lanak aurkeztuko dituzte.

17:30etik aitzinera, Michel Duvert, Manuel Urtizberea, Paul Badiola eta Catherine Marchand idazleek mintzaldiak eskainiko dituzte.

### Apirilak 2, astelehena

10:00etatik 11:00etara Zuraidoko eskola, Senpereko eskola pribatua, Hendaiako San Bixente eskola eta Aiherreko eskolako lanen erakusketa izanen da ikusgai.

11:00etan idazleen aurkezpenak hasiko dira: Txomin Peillen, Eneko Bidegain, Eric Dicharry eta Koldo Zuazogain, Euskaltzaindiako Jean-Baptiste Coyos, Xarles Bidegain eta Annde Urrutiak aurkezpenak egingen dituzte. Aipatzekoa da 11:30ean Koldo Zuazok herriko saria hartuko duela Battit Laborde auzapezaren eskutik.



Idazleen Biltzarra ia. EKE

12:30etik aitzinera, Biltzarreko sari nagusia emanen diete Auxtin Zamora eta Jean-Claude Larronderi. 14:30ean, Isabelle Saphore eta Philippe Saubadine idazleek aurkezpenak egingen dituzte.

Arratsaldean, 15:00etatik aitzinera, idazle andanak mintzaldiak eskainiko dituzte: Ttotte Etxebeste, Amaiur Blasco, Juankar Lopez Mugartza, Joxe Gimenez Maia, Auxtin Zamora, Pierre Olagarai, Maitte Olhagaray, Martin Bouchet, Jean Claude Larronde eta Asisko Urmenetak.

Igandean, 16:00etan eta 17:00etan eta astelehenean, ordu horietan eta 11:00etan, irakurketa musikalak eskainiko ditu Kiribil Konpainiak.

**KOLDO ZUAZOK  
ASTELEHENEAN  
HERRIKO SARIA  
HARTUKO DU**

## Sara Korrika Trail mendi lasterketaren 13. edizioa martxoaren 25ean

### TTIPI-TTAPA

Igande honetan, martxoak 25, egingen da 22 kilometroko luzera eta 1.600 metroko malda duen Sara Korrika Trail mendi lasterketa. Lasterkariak 09:00etan abiatuko dira plazaatik eta 10:45 aldera espero dute lehenbiziko korrikalaria. 13:00etan, berriz, sari bana-keta egingen dute. Lehenbiziko helmugaratzen diren bortz gizonezko eta emakumezkoek sariak hartuko dituzte; lehenbiziko ailegatzen direnek 200, 100 eta 50 euroko sariak jasoko dituzte, hurrenez hurren.

Gizonezko eta emakumezkoetan, lehenbiziko ailegatzen diren beterano eta promesek ere saria izanen dute. Oier Ariznabarretak 2016an ezarritako marka (01:51:21) hobetzen duenak ere saria izanen du.

### Mendi ibilaldia

Egun berean, ibilaldia ere antolatu dute. 07:00etan zabalduko dute izena emateko mahaia, eta bortz euro ordainduta, 07:30etik 08:30era frontoitik abiatuko dira. 17 kilometroko luzera eta 1.000 metroko malda ditu ibilaldiak.



ZAZPIAK BAT TALDEA

## Korrontzi dantzan apirilaren 7an

Ikastolaren 40. urteurrenaren karietara, Korrontzi dantzan ikusgarria antolatu dute Zazpiak Bat taldearekin. 20:00etan hasiko da kiroldegian, baina 18:00etatik goiti jatekoa eta edatekoa izanen da. Sarrerak salgai daude Herriko Etxeko Edantegia, Pleka Trinketea, Baketu eta Idazleen Biltzarrean.

## Eskulanen erakusketa Biltzarrean

Idazleen Biltzarrearekin bat eginez, martxoaren 31tik apirilaren 2ra Eskuen Lana Elkarteko lanak ikusgai egonen dira Lur Berri gelan, 10:00etatik 18:00etara. Axuri'arte elkarteko lanak ere ikusgai paratuko dituzte egunero plazan.

## Martxoaren 30etik goiti ortziraleko merkatua plazan

Martxoaren 30etik aitzinera, ortziralez, ekoizleak plazan izanen dira 16:30etik goiti. Horrez gain, neguan martxan emandako Internet bidezko banaketak ere segituko du. Informazio gehiagorako: sarakomerkatua@gmail.com edo 06 76 24 94 56..





Senpereko Traileko emaztekoen podiuma. J. HARRIZPE



Senpere Traileko gizasemeen podiuma. J. HARRIZPE

## Senpereko traileko edizio bikaina iragan da bi egunez

Hiru distantziako lasterketek arrakasta ikaragarria izan dute, denera 1.300 kirolarik eman baitzuten izena

### PIERRE BASTRES

Zazpigarren aldikoz, Senpereko Lasterka elkarteak Senpere Trail mendi lasterketa antolatu zuen martxoko bigarren aste hondarrean. Zazpi urte lehenago 350 kirolari bildu ziren 21 kilometroko proba bakarrean. Aurten, ordea, 1.300 lagunek eman zuten izena hiru lasterketetan: hamar kilometrokoan 250 lagunek, 21 kilometrokoan 750ek eta 42 kilometrokoan 300ek. Azken hau, Gotorlekuen Itzulia, lehen aldikoz egin zen, antolatzaileek zazpigarren edizioa usaiak kanpoko zerbait eginez ospatu nahi baitzuten: «gure nahikeria aurten 42 kilometroko lehia egin eta heldu diren urteetan ez errepikatzea zen. Haatik, bildutako arrakasta eta laudorioak ikusita, gogoeta eginen dugu gure artean, berriz eginen dugunez

deliberatzeko». Bere irudiko, «ibilbidea ezin ederragoa zen, eta aroari esker partaideek begi-bazka ausarkian izan dute. 300 lagun onartu ditugu, baina ainitz gehiagok izenpetu nahi zuten. Nonahi geroz eta mendi maratoi gehiago izanagatik, korrikazale gehiago dira!», adierazi du Benat Seillan antolatzaileak. Gainera, «proba honen maila arras gora zen, hor ziren Benoît Cori eta Guillaume Levoy, nazio mailako leihakideak. Azkenean, Carlos Garzia Rekondo irundarrak eraman du txapela eta Guillaume Levoy bigarren tokian bururatu da. Emazteetan, Carole Duhart izan dugu lehena eta Séverine Duhalde bigarrena. 21 kilometrokoan, Oñatiko Iban Letamendi nagusitu da eta Gorka Herce bigarren. Senpereko Mixel Guilçou hamabigarren izan




Emakume bat, Senpereko karriketan lasterka. J. HARRIZPE

da. Nesketan, Maite Etxezarreta izan da trebeena».

### «Oraingo neurria atxikiko dukegu geroko edizioetan»

Senpere trail handituko denez galdeginda, Benatek dio ezin gantuzko mugak dituztela: «arazorik handiena autoen aparkatzea eta lasterkariak dutxak diren eremuetarat eramatea dira. Ibarrun auzo heresia da, baina mendietarik hurbil, eta ez da nahiko lekurik auto eta dutxendako. Huenbertzez, jendea minubsetan mugitzen dugu, eta ez da erraza. Beraz, oraingo neurria atxikiko dukegu geroko edizioetan, eta ongi da hola-hola segitzea. Hortaz kanpo, antolakuntza ona dau-



Mendian lasterka. J. HARRIZPE

kagu, nahianta ainitz ditugu eta segurtasun betebeharrak ongi zaintzen eta betetzen ditugu. Beraz, izigarri bozik gara, jende orok erran dauku atsegin handiz itzuliko dela!».



EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrika · BERA  
zubiondojatetxea.com



- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizatu
- Sagardotegiko menua

**TXOTX GARAIA IREKIA**

102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130



Vicente, Saralegi, Ariztegi eta Aranburu txapeldunak Azepeitian. IBON ERRAZU

## Vicente-Saralegi eta Maika Ariztegi dira Urrezko Aizkolaria

Iturendarra segundo baten 20 ehunenagatik nagusitu zaio Azepeitiko finalean Nerea Sorondo beratarrari

### TTIPI-TTAPA AZPEITIA

Urrezko Aizkolarien gizonen binakakoa, Urrezko Aizkolarien emakumezkoen binakakoa eta harri-jasotzaileen txapelketaren finalak jokatu zituzten martxoaren 4an, Azepeitiko Izarraitz pilotalekuan. Giro bikaina izan zen eta Iker Vicente eta Ruben Saralegi lehengusuak, Maika Ariztegi eta Xabier Aranburu suertatu ziren txapeldun.

Lehenik, gizasemeen binakako Urrezko Aizkolarien txapelketako finala jokatu zuten Aitzol Atutxa II.a eta Julen Alberdi Txikia IV.a, Iker Vicente eta Ruben Saralegi eta Joseba Otaegi eta Ugaitz Mugertza II.a bikoteek. Proba osoan aitzinetik joan ziren Otsagabiko Iker Vicente eta Leitzako Ruben Saralegi lehengusuak, eta hain zuzen ere, horietatik jantzi zuten bi-

nakako txapelketako txapela. Lehia erdi aldera arte berdinduta joan zen; une batzuetan nafarrei aurre hartzeko puntuan izan ziren Atutxa II.a eta Txikia IV.a, baina azken txanpan erraz aritu ziren Vicente eta Saralegi. Azkenean, 24 minutu eta 45 segundo behar izan zituzten lan guztiak burutzeko. Horrenbertez, bigarren postuan bukatu zituzten Atutxa II.ak eta Txikia IV.ak egin beharreko lanak (25 minutu eta 53 segundo). Hirugarren, berriz, Otaegik eta Mugertza II.ak egin zuten (26 minutu eta 15 segundo).

### HASIERATIK BUKAERARA NAGUSI IZAN ZIREN LEHENGUSUAK

### 20 ehunen alde

Ondotik hasi zen emakumeen banakako lehia. Elgorriagako Irune Izkuek, Iturengo Maika Ariztegi, Berako Nerea Sorondok eta Zeanuriko Irati Astondoak neurtu zituzten indarrak, eta Ariztegi nagusitu zen. Lehia estua izan zuten Ariztegi eta Sorondok, eta epaileek foto-finisha behar izan zuten txapela erabakitzeko. Segundo baten 20 ehuneko alde bakarrik izan zen iturendarraren eta berriz ere txapeldunorde izan den beratarraren artean. Ariztegi 8 minutu, 15 segundo eta 8 ehunen behar izan zituen eta Sorondok 8 minutu, 15 segundo eta 28 ehunen. Hirugarren Astondoak egin zuen (9 minutu eta 37 segundo), eta laugarren joan den urtean txapeldun izan zen Izkuek (11 minutu eta 14 segundo).

Urrezko Aizkorako txapelketekin batera jokatu zuten harri-jasotze txapelketaren finala ere. Hiru harri-jasotzaile aritu dira txapelaren bila: Aimar Galarraga, Imanol Illarrendi eta Xabier Aranburu. Aranburu nagusitu zen, denera 2.450 kilo bizkarreratuta. Bigarren Illarrendi izan zen (2.435 kilo), eta Galarraga hirugarren (2.150 kilo).



Igandean jokatuko dituzte finalak.

## Nafarroako Herri Kirol Jokoen finalak Berroetan jokatuko dituzte

### TTIPI-TTAPA BERROETA

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako herri kirol jokoen finalak jokatuko dituzte martxoaren 25ean, igandean 10:30ean hasita Berroetan. Otsailaren 25ean Etxarri Aranatzek hasi eta martxoaren 4n Betelun, martxoaren 11 Antsoainen eta martxoaren 18an Igantzin egitekoa zuten jardunaldien ondotik, azken saioa izanen da Berroetakoa.

Kimu mailan proba konbinatuan hamazazpi talde aritu dira eta finalean aritzeko lau onenen artean sartzeko aukera handiak ditu Igantzik (Betelun eta Antsoainen garaile atera zen eta Etxarri Aranatzek bigarren izan zen). Haur mailan zailagoa zuten Basaburuak eta BRT Menditarrak taldeek lau onenen artean sartzea. Kadete mailako proba konbinatuan txapela etxean jantzeko aukera izanen du Basaburuak. Etxarriko Andra Mari taldearekin espero dute lehia handiena.

Sokatiran ere, haur nahiz kadete mailan bikain dabilta Basaburuako neska-mutilak eta txapela ez dute urruti izanen igandean. Hemen ere, Etxarrikoak izanen dituzte arerio gogorrenak, baina herriarren babesak jasoko dute.



Paxaka txapelketako lau hirukote onenak, antolatzaile eta laguntzaileekin batera. JUAN MARI ONDIKOL

# Urtasun, Maia eta Itoizek irabazi dute Paxaka txapelketa

Martxoaren 10ean Iruritako Aranabian jokaturako finalean 9-2 irabazi zieten Oscar Urrutia, Xabier Ripa eta Kaiet Itoizi

## TTIPI-TTAPA IRURITA

Laxoa elkarteak hemezortzigarren aldiz antolatutako paxaka txapelketaren finala jokatu zuten martxoaren 10ean Iruritako Aranabia pilotalekuan. Gorka Urtasun, Juan Mari Maia eta Joxe Itoizek 9-2 irabazi zieten Oscar Urrutia, Xabier Ripa eta Kaiet Itoizi

iruritarren arteko lehian. Txapela, bertze behin, Iruritan gelditu zen.

Finalean jokalariguztiak ongi aritu ziren, batez ere irabazleak. Nahiz eta emaitzari begiratu ta garaipen garbia izan zela iruditu, jokoaren aldetik partida ona izan zen, baina emoziorik gabekoa suertatu zen

55 minutu iraun zuen lehia (4-0, 4-1, 8-1, 8-2, 9-2). Urtasun izan zen onena; aspaldi ez zen horrelako erakustaldi bat ikusten: pilota alde batetik bertze- ra mugitzen kantzaren angelu eta zoko guztiak bilatzen, pilota aront zailak itzultzen eta beti bera agintzen; Maia ere ederki bai sakean bai errestoan eta J. Itoizek sarean bere partidarik hoberena egin zuen. Galtzaileak ez ziren gaizki aritu, baina kintzea ezin lortu

## GORKA URTASUN IZAN ZEN FINALEKO PILOTARIRIK ONENA

ibili ziren eta pixkanaka morala galtzen joan ziren.

### Hirugarren posturako lehia

Aitzinetik, hirugarren postua erabakitzeko norgehiagoka jokatu zen eta agian txapelketako partidarik onena suertatu zen, goi mailako joko eta sekulako emozioa izan zuelako. Azkenean, Manu Irigoien, Guillermo Etxenike eta Miguel Angel Iñarreak 9-8 irabazi zieten Mikel Ballarena, Cesar Iñarrea eta Iñaki Etxandiri. (1-0, 1-1, 3-1, 3-2, 5-2, 5-3, 6-3, 6-4, 8-4, 8-8, 9-8). Sei jokalariaik, bikain aritu ziren ordubete eta 10 minutuz luzatu zen lehia bikainean. 8-4 galtzen joan ondotik, zortzina berdindu eta ematen zuen Ballarena, Iñarrea eta Etxandi hirukoteak partidari buelta emanen zio- la. Baina azken joko galdu eta laugarren postuarekin kotsolatu behar izan zuen lehen faseko partida guztiak irabazi zituen hirukoteak.

Txapelak eta sariak banatzen Iruritako eta Erratzuko alkateak, Pello Obregozo eta Miguel Etxandi hain zuzen, izan ziren. Eta txapelketari bukaera ona emateko, gero Antxitonean afaria izan zuten parte-hartzaile eta antolatzaileek.

## Erremonteko Sagardoaren txapelketa zortzi bikoterekin abiatu da

### TTIPI-TTAPA

Bi multzotan banatutako zortzi bikote parte hartzen hasiak dira zortzigarren aldiz antolatutako erremonteko Sagardoaren txapelketan. Otaegi-Ion (Petritegi), Juanenea-Endika (Larre Gain), Urriza-Garces (Gurutzeta), Seguroola-II-Barrenetxea IV (Oialume Zar), Ezkurra II-Azpiroz (Bereziartua), Uterga-Zubiri (Altzueta), Etxeberria IV-Agirrezabala (Gaztañaga) eta Matxin III-Larrañaga (Setien) hasiak dira apirilaren 28an emanen den txapelaren bila.

Lehenbiziko partida martxoaren 8an jokatu zen eta ligaxka martxoaren 31n akitu- tuko da. Gero azken faseko partidak izanen dira apirilean. Aipatzekoa da Saldiasko Arizt Juaneneak eta Endika Urrutiak bikote eginen dutela.

Multzo bakoitzeko hirugarren eta laugarren sailkatuek elkarren kontra jokatu dute final zortzirenetan apirilaren 7an eta irabazleek final laurdenak jokatu dituzte lehen fasean bigarren izan direnen kontra, apirilaren 14an. Final laurdenetako irabazleek, mul-



Sagardoaren txapelketako aurkezpena. MAIALEN ANDRES

tzo-buru izanen direnen kontra jokatu dituzte finalerdiak apirilaren 21ean eta final handia apirilaren 28an jokatu da Galarretan.

Bertze aldetik, Iruñeko Alde Zaharreko V. Erremonte txapelketa ere abiatu da. Apirilaren 6an jokatu dira lehen eta bigarren mailako finalak.

# AGENDA

## MARTXOAK 22 - APIRILAK 5

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: T. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

### HITZALDIAK

#### ELIZONDO

##### Inguruaren pozoiketa eta pertsonen minbizia hizpide

EHNEko Paul Bengoaren eskutik. Arizkunenean, martxoaren 22an, 19:30ean.

##### Etxebizitzen biziberritzea mintzagai

Arizkunenean, martxoaren 23an, 16:00etatik 19:30era.

#### BERA

##### Toki Onako ikasle ohiekin mahai-ingurua

Beralandetan, martxoaren 23an 18:00etan.

#### SARA

##### Idazleen Biltzarra

Larronde eta Zamoraren eskutik. Kiroldegian, apirilaren 1ean (15:00-19:00) eta 2an (10:00-19:00).

#### LEITZA

##### Bertatik bertara formazio saioak

Leitzako udaletxean. Martxoaren 22an eta apirilaren 5ean, 15:30etik 18:00etara.

### IPUIN KONTAKETAK

#### ERRATZU

##### Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira

4-10 urtekoendako. Martxoaren 23an, 17:30ean.

#### BERA

##### Estitxu Mentaberri kontalaria

4 urtetik goitikoentzako. Liburutegian, martxoaren 23an, 18:00etan.

#### DONEZTEBE

##### Ipuin txokoa

Liburutegian, martxoaren 27an, 11:00etan.



#### ELIZONDO Udaberriko feria

Ahari lehiaketaren XX. edizioa ospatuko dute. Apirilaren 6an, ortziralean, Elizondon,

### ANTZERKIAK

#### BERA

##### 'Vini, Vidi, Vinci'

Hiruklun taldea. Kultur Etxean, martxoaren 24an, 19:00etan.

#### SARA

##### Haurren ikuskizuna

Ikastolako Erabilera Anitzeko Aretoan, apirilaren 6an, 18:00etan.

#### IRURITA

##### Ez dok hiru

Helduendako antzerki akustikoa. Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean, apirilaren 8an, 19:00etan.

### DANTZAK

#### DONEZTEBE

##### Bartzelona eta Nafarroako dantzarien kongresua

Martxoaren 29an, 30ean, 31n eta apirilaren 1ean.

### ZINEMA

#### SARA

##### DVD proiektzioa eta solasaldia

Komunikazio ez bortitzari buruzko gaualdiaren harira Ikastolan, martxoaren 23an, 19:00etan.

#### DONEZTEBE

##### Erreka Guraso Elkarteak antolatutako zine emanaldia

Zineman, martxoaren 25ean, 16:30ean.

### AZOKAK

#### ELIZONDO

##### Bertako produktuen merkatua

Martxoaren 30ean eta 31n, 11:00etatik 19:00etara, Elizondoko plazan.

#### SARA

##### Ekoiileen merkatua

Martxoaren 30ean hasita, ortziraleko 16:30etik goiti, herriko plazan.

### MENDI IRTEERAK

#### BERROETA

##### Bertako zuhaitz espezie eta bariatateak ezagutzeko ibilaldia

Xabier Zabaletarekin. Martxoaren 24an, 09:00etan.

#### LESAKA

##### Lesakatik Oiartzunera

Gazte Akelarrean parte hartzera. Lesakako plazatik abiatuta. Martxoaren 29an, 10:30ean.

### OSPAKIZUNAK

#### OIEREGI

##### Basoen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi

Martxoaren 24 eta 25ean (lk. 25. or.).

#### SUNBILLA

##### VIII. Joko Topaketa

Martxoaren 28an.

#### ELIZONDO

##### Udaberriko feria

Apirilaren 6an.

#### LESAKA

##### Gazte Eguna

Apirilaren 7an.

### KONTZERTUAK

#### DONEZTEBE

##### Sakro kontzertua

Mendi Abesbatzaren eskutik. Elizan. Martxoaren 23an, 20:00etan.

#### LESAKA

##### Haur Kantarien Topaketa

Tourseko San Martin Parrokian, martxoaren 24an, 17:00etan.

#### ELIZONDO

##### Gatibu eta Trikidantz taldeen kontzertuak



ARGAZKILARIAXXXX

### LEKUNBERRI Bardoak bertso-txapelketako finala

Baztan-Malerreka, Leitza eta Lesakako taldeak ariko dira aurrez aurre. **Martxoaren 24an, Lekunberriko Toki-Alai sagardotegian, 17:30ean.**

**Lur Aretoan.**  
Martxoaren 24an, 23:30ean.

### 'Sarasate bizirik'

Kontzertu-dokumentala.  
Arizkunengan.  
Martxoaren 25ean, 19:00etan.

### Musika Eskolako entzunaldiak

Arizkunengan. Martxoaren 26an, 27an (17:00-18:00) eta 28an (16:30).

### Musika eskolako kontzertua

Martxoaren 28an, Harriondoan, 18:00etan.

### BERA

#### Joseba B. Lenoiren kontzertua

Martxoaren 29an, 23:00etan, Katakun.

### SARA

#### Korrontzi eta zazpiak bat

Ikastolaren 40.urteurrena ospatuz  
Apirilaren 7an, ikastolan, 20:00etan.

## ERAKUSKETAK

### SARA

#### Pintura eta eskultura ikusgai

Larungo Koloreak Elkarteko lanak.  
Martxoaren 31tik apirilaren 2ra, 10:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 19:00etara. Doan.

### OIEREGI

#### Argazki-erakusketak

Zuhaitz Zaharren Lagunen Elkartaren eskutik  
Bertiz Natur Parkeko Pedro Ciga Aretoan, martxoaren 17tik apirilaren 8ra.

### LESAKA

#### San Ferminetako azal eta kartel lehiaketako lanen erakusketa eta bozkaketa

Kultura eta Turismo Bulegoan, martxoaren 28tik apirilaren 8ra.

### BERA

#### Toki Onako argazkiak ikusgai

Martxoaren 23 eta 24an, ikastetxean.

## Nire aukera

# «Deusen beharrik izan gabe, zoriontsu izan nahi nuke»

MARIA IANTZI IGANTZIKO GAZTEA

Saltsa guztietan «sartzen den» edo «sartzen duten» gaztea da Maria Iantzi. «Musika eta dantza» ditu gozamenerako bitarteko, eta ez kasualitatez. Izan ere, «aitaxi bertsolari izana da eta akordeoia jotzen zuen. Aitak haren urratsak segitu zituen, eta ondotik, nik hartu nion lekukoa, trikitixa astinduz». Zazpi urte inguru zituela hasi zen ikasten eta hamasei bat urtera arte, «han eta



UTZITAKO ARGAZKIA

hemen» jaso zituen klaseak. Ondotik «ikasle izatetik Igantziko ttikien irakasle izatera pasa nintzen». Ez da hori izan ttikiekin izan duen harreman bakarra, «hezitzaile izateko magisteritza ikasten» ari baita, Donostian. Heziketari «berebiziko garrantzia» eskaintzen dio, «balioa ematen erakutsi didatelako» eta horren lekuko da metodologia tradizioletan itotzeak sortzen dion «kezka». Belaunaldi

gazteak «ardura hartu» eta «hezkuntzak beharrezko dituen eguneratzeetan lan egin» behar lukeela uste du. Astez Donostian bizi da, baina ortzilean ailegatu bezala, Igantzira bueltatzen da, «irria ezpainetan» duela. Hortxe hasten dira asteburuko plan ederrak, «ortzireleko pintxo eta pote artean». Larunbat goizean ahal bada, eta «bezperako pintxoek pisu gehiegi hartzen ez badute, mendira joatea gustatzen zait». Ondotik, «familia artean bazkaldu eta arratsaldea lagunekin pasatzea bezalakorik ez dago». Asteburua «borobiltzeko» elkartetxean «afaldu eta inguruko herriren batean besta eginen nuke». Horixe da lantziarentzat zoriontasunaren iturria «ingurukoak nirekin ere zoriontsu izatea», alegia. Mahai-inguru edo trikipoteotan, «lagun batekin trikitixa hartzen dudana momentuak», erraterako, «ederrak» dira, «gozaraziz gozatzeko bide ematen dute». Bide batez, eta eskatzen hasita, «ingurukoaren eta nire buruaren zoriontasun hori», bere kasa garatzea, «deusen beharrik izan gabe, eta bertze gizarte eredu batean bizitzea» du amets. *Ametsik gabeko blziak, izarrak gabeko gau* direnez, «horien bila borrokatu behar genuke», eta saiatuz gero, zerbait da espero.

# ZERBITZUAK

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI

**ELIZONDO.** Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 55.000 euro. ☎ 646 774 117.

**ITUREN.** Hainbat neurritako apartamentuak hagitz prezio salgai. ☎ 948 451 337 / 667 275 013.

**ORONOZ.** Etxebizitza salgai. 5 logela eta 3 bainugela. Sukaldea, jangela eta trastelekua. ☎ 677 072437.

**LEGASA.** Pisua garajearekin salgai. 3 gela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena berritua. ☎ 696 266907.

#### ERRENTAN EMATEKO

**LESAKA.** Pisua errentan emateko. Ganbara, bajera eta lurreko sua ditu. ☎ 943 633430.

**ALMUÑECAR** hirian, Granadako kosta tropikalean, etxebizitza errentan emateko martxoko 2. hamabortzaldia, maiatza eta ekaineko 1. hamabortzaldian. Pertsona bat edo birentzat egokia. Hondartzako lehen lerroan, igerilekua eta bista ederrak. Guztiz ekipatua, aire egokituarekin. ☎ 658 943702.

#### ERRENTAN EMATEKO

**ELIZONDO.** Lanean dagoen bikote batek pisua errentan hartuko luke. ☎ 644 882115.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### SALGAI

**DONOSTIA.** Garajea salgai. ☎ 678 855056.



744 484 361

ttipi-ttapa

## IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

### GARAJEAK/LOKALAK

#### ERRENTAN EMATEKO

**IRUÑEA.** Ile-apaindegi berri bat errentan emateko, Buztintxuri eta Artika Berri artean. Esperientzia duen pertsona batentzat. Gaur egun lanean bezeroekin. 850 euro hileko. ☎ 636 181546/ 948 067071.

**LESAKA.** Albistur karrikako 43. zenbakian, lur azpiko bajera errentan emateko. ☎ 618 962937.

**LESAKA.** Bittiria karrikan, lurpeko aparkalekua errentan emateko. 20 euro hilabetean. ☎ 636 847510.

### LANA

#### EZKAINTZAK

**ZUGARRAMURDI.** Ostatu batean euskaraz eta gaztelaniaz dakien zerbitzaria behar da. ☎ 948 599022 (10:30-17:00).

3 eta 7 urteko **bi haur zaintzeko** pertsona behar da. Bortziriak ingurukoa, euskalduna eta autoarekin. Printzipioz arratsaldetan bakarrik. ☎ 609 575814.

**URDAZUBI.** Montxo ostatuan bi zerbitzari behar dituzte. Bat egun osoan lanean aritzeko eta bertzea astebu-

ruetan. ☎ 675 332124 / 622 808664.

**BERA.** Larungo benta batean frantses pixka bat dakien gizonezko zerbitzaria behar dute 6 hilabetez lan egiteko. ☎ 607 566022.

**ZUGARRAMURDI.** Kattalin jatetxean zerbitzari bat behar dute asteburuetan eta udan lan egiteko. Frantsesez pixka bat jakitea eta esperientzia izatea beharrezkoa da. ☎ 948 599009 / 948 599146.

**LESAKA.** Batzoki ostatuan aritzeko langile bat behar dute. Nahiago Lesakarra bada eta bertze lanik ez duena. Lanerako gogoia izatea nahi dute. ☎ 642 941481 / 695 669831.

**ELIZONDO.** Beatriz ongizate zentroan lanaldi erdiz (arratsalde) lan egiteko lagun bat behar dute. Beharrezkoa da estetika ikasketak izatea. ☎ 636 142890.

**BAZTAN** aldean, bi langile behar dituzte, mekanikari eta txapista gisa aritzeko. ☎ 616 729952.

**IRUN.** Esperientzia duen zerbitzaria behar dute asteburutan estra moduan lan egiteko. ☎ 650 173031.

**DANTXARINEA.** Mikelenborda jate-txean sukaldaria behar dute. Egu-

neko lana urte osoan. ☎ 948 599045/ 690 388134.

**LESAKA.** Zerbitzaria behar dute asteburuetan, udako opraldietan eta bajak kubritzeko. ☎ 620 700964/ 636 267369.

#### ESKARIAK

Eskualdeko **24 urteko neska** batek goizez lan eginen luke. Ostalaritza eta haurrak zaintzen aritua. ☎ 609 228926.

**Umeak zaintzen esperientziadun** neska lana behar du. Bi urteko esperientzia Haur Eskoletan, baita udan haurren zaintzetan ere. Umeren bat zaintzea behar izanez gero, deitu edota jarri harremanetan Whatsapp bidez. ☎ 675 336624.

Adinduak **zaintzen** edo **garbitasunean** aritzeko esperientziadun emakumea lan bila. Nahiago interna moduan. ☎ 689 188670.

**Hainbat lanbidetan esperientzia** duen mutila lan bila. ☎ 622 015725.

Haurrak **zaintzen, garbitasunean** aritzeko... esperientziadun neska lan bila. Interna edo orduka. ☎ 682 693911.

Adinduak edo haurrak **zaintzen** edo **garbitasunean** aritzeko neska gazte bat lan bila. Esperientzia adinduak zaintzen, eri dauden pertsonak zaintzen eta garbitasunean. ☎ 644 963709.

Sukaldaritzako ezagutza duen **gizon arduratsua** lan bila. ☎ 644 771861.

Adinekoak edo haurrak **zaintzen** edo **garbitasunean** aritzeko lan bila. ☎ 644 860944.

Adinekoak edo haurrak **zaintzen** edo **garbitasunean** aritzeko neska lan bila. Orduka edo interna moduan aritzeko prest. ☎ 644 963709.

### BEHIKIA

#### Aretze gizenak:

##### Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,35
- 1.koa 4,13
- 2.koa 3,93

##### Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,37
- 1.koa 4,23
- 2.koa 3,83

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

## Baserria

#### Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

#### Aretze mestizoak

- Urruxak 168,00
- Idizkoak 200,00

#### Aretze nabarrak

- Sortu berriak: 160,00
- Idizkoak 180,00

#### Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

#### Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,00/6,60
- 8-10 kilokoak: 5,00/5,80

### ZERRIKIA

#### Zerrikumea

(19 kilo): 63€

#### Zerri gizona

1,146 €

#### Zerramak

0,620€ kg/bizirik

Datu iturria  
Nafarroako Gobernua  
(martxoaren 2tik 9ra bitarteko  
prezioak)

Adinduak zaintzen edo garbitasunean aritzeko lan bila. Adinduak zaintzen esperientzia. ☎ 635 296717.

**Esperientziadun gizonezkoa** lan bila. ☎631 090631.

Adinekoak zaintzen edo garbitasunean aritzeko lan bila. Esperientziaduna adinekoak zaintzen. Inter-na moduan edo orduka lan eginen luke. ☎631 379865.

**LESAKA.** Garbitasuna egiteko, esperientzia duen emakumea lan bila. ☎ 669 180779.

Esperientziadun emakumea **Bera edo Lesaka inguruan lan bila:** portalak garbitzen, etxeko lanak egiten edo adinekoak zaintzen ariko litzateke. ☎ 678 903294 / 948 630914.

**MOTORRAK**  
SALGAI



**Peugeot 308 HDI Sport** autoa salgai, 110 CV. Argi automatikoak eta abia-duraren kontrolarekin. Bizona klimatizagailua. Laino-argiak, eta hagu edo llantak alineatuta. 2010-eko maiatzekoa. Beti garajejan egondakoa da eta egoera hagitza onean dago. Aukera paregabea. Prezioa: 6.800 euro. ☎ 696 290759.

**MOTORRAK**  
TAILERRAK



**ZERBITZUAK**  
ZURGINDEGIAK



Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA  
647 810 144 · 626 093 181

**ZERBITZUAK**  
KLASE PARTIKULARRAK

**BERA.** Yoga eta meditazioa, goizez eta eguerditan. Lehenbiziko klasea dohainik. ☎627 395245.

**ANIMALIAK**  
SALGAI

**Behi mestizoa** salgai, ernari. ☎ 634 655571.

**DENETARIK**  
SALEROSKETAK

**XX. mendeko altzariak salgai.** Rustikoak, intxaur-zuhaitzaren egurrarekin egindakoak, lixatuak eta tratatuak. ☎ 617 661540. Konpromisorik gabe ikus daitezke.

**Altzairuzko sei fregadera** salgai, 1,73 metro x 34 cmko neurria. Forma borobila. ☎948 585036.



**Gela salgai,** 2 ohe 1,05 metroko koltxoi eta guzti, mesanotxea eta 2,70 x 2,40ko armairuarekin. 300 euro. ☎ 648 016729.



**Gela salgai,** 1,35 metroko ohea koltxoi eta guzti, 2 mesanotxe, sinfornier-rra ispiluarekin eta 1,68x1,90ko armairua. 150 euro. ☎648 016729.

**Ile-apaindegiko bi aulki** eta paretako sekadorea salgai. Estreinatuta gabeak. ☎660 238654.



**Rotabatorea** salgai, berri-berria estreinatuta gabea. Aukera ona. ☎620 997794.

Ikusi iragarki labur guztiak gure webgunean:  
<https://erran.eus/merkatu-ttikia>

**E.S. SANTESTEBAN**  
Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679

www.doneztebe.com

**KOTXE GARBITEGI BERRIA!**  
*ShineTecs*  
"KONPONTZE EFEKTUA" duen pintura babeslearekin

> "Acrylonic" formula patentatua. Argizaria baino hobea.  
> Kapa babeslea indartzen du garbiketa bakoitzean

**FURGONETA GARBITEGI BERRIA!**

2,60 m

**2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu**

## IGANTZIKO UDALA

### Oihan enkantea

Igantzik Udalak, behar bezala baimenduta, enkante publikoa eginen du, gutun-azal itxien prozedura erabiliz, honako oihan aprobetxamendu hau saltzeko:

1. lotea: Anddo alderdian, intsinis pinua, 13.495 zuhaitz, 3.213,88 metro kubiko enbor ttiki eta 1.350,97 m<sup>3</sup> egur egiten dutenak. PEFC oihan ziurtagiria du. Hasierako prezioa: 60.000,00 euro (BEZa kanpo).

Enkantean parte hartzeko proposamenak Igantziko Herriko Etxeko Idazkaritzan aurkeztuko dira, eta haiekin batera prezioaren %2 behin-behineko fidantzakotako pausatu izanaren gordekina ere aurkeztuko da proposamenarekin batera, eta onartutako ereduari lotuko zaio. Horretarako, hamabortz egun balioduneko epea izanen da, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, egun horretako hamabiak arte. Jarraian irekiko dira proposamenak.

Baldintza tekniko eta ekonomiko-administratiboan agiriak Igantziko Herriko Etxeko Idazkaritzan daude ikusgai, interesdunen eskura.

Igantzi, 2018ko otsailaren 28an  
Alkatea, Juankar Unanua Navarro.

### Mendaur Motor

Leitzako bidea • DONEZTEBE  
T. 948 450 333

**Kotxe salmenta**  
Marka guztiak

kotxe berriak

**2. eskuko kotxe salmenta**

Mekanika  
Txapa eta pintura  
Elektrizitatea  
Aseguruak

**Bereziki 4x4 autoak**

[www.mendaurmotor.es](http://www.mendaurmotor.es)

**2. eskuko bizikletak**

Orbea Oiz  
2.500€

Orbea Orca  
1.200€

Orbea Wild Elektrikoa  
2.500€

Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 631 218  
joxemi@kateabike.com  
www.kateabike.com


URTEBETETZEAK



Erratzuko **Iker Iturburu** eta **Enaitz Vicondo Jaurenak** martxoaren 11n eta 18an 15 eta 9 urte bete dituzte. Zorionak familia eta bereziki Haritz eta Naroaren partetik.



**Izarne Agesta Petirenak** martxoaren 29an 2 urte beteko ditu. Zorionak gure etxeko printzesari! Berako ataxi, atta, ama eta bereziki bere anaia Enaitzen partetik. Muxu pottolo bat.



**Iruña Hernandorena Lopez** leitzarrak 3 urte bete ditu martxoaren 16an. Zorionak eta muxu pottolo bat gurasoak, amona eta aitona partetik.



**Aiert Baleztena Goñi** eta **Manex Goñi Errandoneak** 3 urte eta urte bat beteko dituzte apirilaren 4an eta martxoaren 30ean. Zorionak Arantza eta Berako familiaren partetik.




Aurtizko **Ekiñe Mindegiak** apirilaren 2an 20 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik, eta berexiki Leiane, Naikari eta Xabat iloben partetik. Bazkari goxoa prestatu!



Narbarteko **Iraia MartIn Argainek** martxoaren 24an 6 urte beteko ditu eta amaxi **Kontxik** apirilaren 8an 68 urte. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik, baina bereziki Juneren partetik!

SORTZEAK

- **Jules Thierry Mikel Esther Bonfond**, Sarakoa, otsailaren 10ean.
- **Iker Verde Dorronsoro**, Narbartekoa, otsailaren 28an.
- **Beñat Bergara Cabodevilla**, Arantzakoa, martxoaren 2an.
- **Ioritz Telletxea Bengoetxea**, Igantzikoa, otsailaren 18an.
- **Aiara Andueza Larzabal**, Igantzikoa, martxoaren 9an.
- **Alaia Mindegia Aioroa**, Iturengoa, martxoaren 5ean.
- **Inhar Baleztena Izquierdo**, Zubietakoa, martxoaren 11n.



**Aritz Portu Iraizoz** Martxoaren 21ean urtea beteko du. Muxu pila bat Lesaka eta Artazkozko familiaren partetik.

Elizondoko **Malen eta Kattalin Iparragire Oteizak** martxoaren 20an 5 urte eta apirilaren 19an urtea beteko dituzte. Aunitz urtez printzesak! Muxuak

**Aunitz urtez!**

Martxoaren 26ko 10:00 arte bildutako zorion-agurrak soilik sartuko ditugu hurrengo zenbakian.

HERIOTZAK

- **Maria Cristina Ugalde Barberon**, Berakoa, martxoaren 1ean, 78 urte.
- **Fernando Mansito Caballero**, Elbeten, 71 urte.
- **Agustin Gamio Etxenike**, Anizkoa, martxoaren 4an, 90 urte.
- **Agustin Amorena Saintdemont**, Zugarramurdikoa, martxoaren 8an, 98 urte.
- **Ricardo Alava Diez**, Lesakakoa, martxoaren 8an, 83 urte.
- **Ramoni Urtxegi Etxebeste**, Berakoa, martxoaren 8an, 80 urte.
- **Mirentxu Aleman Dendarieta**, Arizkungoa, martxoaren 9an, 84 urte.
- **Juana Maritorea Etxeberria**, Amaiurkoa, martxoaren 11n, 87 urte.
- **Petra Jorajuria Larramendi**, Doneztebekoa, martxoaren 12an, 92 urte.
- **Joxe Mari Maia Andueza**, Lesakakoa, martxoaren 12an, 84 urte.
- **Hilario Olan Baraibar**, Leitzakoa, martxoaren 12an, 77 urte.
- **Loli Dozagarat Arburua**, Berakoa, martxoaren 14an, 77 urte.
- **Mª Rosario Goñi Larregi**, Iruritikoa, martxoaren 14an, 76 urte.

**SORTZEAK ETA EZKONTZAK**

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du.

**ARANTZAKO UDALA**

**Oihan enkantea**

Arantzako Udalak, behar bezala baimenduta, enkante publikoa eginen du, gutun-azal itxien prozedura erabiliz, honako oihan aprobetxamendu hau saltzeko: Ametxoko eta Zerradoko Borda alderdietan, 1.642 zuhaitz (insignis pinuak eta haritz amerikarrak), 403,25 metro kubiko enbor tiki eta 1.613,01 metro kubiko egur egiten dutenak. PEFC oihan ziurtagiria dute. Hasierako prezioa: 55.309,20 euro (BEza kanpo). **Proposamenak** Arantzako Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabortzgarren egunean; hasierako prezioaren %2 utzi izanaren gordekina ere aurkeztuko da proposamenarekin batera, eta onartutako ereduari lotuko zaio. Klausula ekonomiko-administratibo partikularren eta baldintza teknikoaren agiriak interesdunen eskura daude Udal Idazkaritzan.

Arantza, 2018ko martxoaren 8a | Alkatea, Mentxu Peña Lizarazu

**ARANTZAKO UDALA**

**Hiri-jarduketarako Plan Berezia 5. poligonoko 971., 972. eta 973. lurzatieta. HASIERAKO ONESPENA**

Herritarren parte-hartze prozesuaren ondorioz, Arantzako Udalak, 2018ko otsailaren 5eko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, hasiera batez onetsi da Hiri-jarduketarako Plan Berezia, Arantzako Udal Katastroko 5. poligonoko 971., 972. eta 973. lurzatieta (Jose Miguel Errandonea Ordoqui jaunak sustatua), eta xedatu da jendaurrean edukitzea. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eman ondoren, hilabeteko epean, interesdunek hirigintza espedientea kontsultatu ahaliko dute eta, kasu bada, bidezko iruditzen zaizkien alegazioak aurkeztu. Argitaratu ematen da, aipatu Legegintzako Foru Dekretuaren 72.1-a artikuluan ezarritako ondorioak izan ditzan.

Arantza, 2018ko martxoaren 1a | Alkatea, Mentxu Peña Lizarazu



OROIGARRIA

**Joseba Andoni  
URDANITZ ETXEBERRIA**

2002ko apirilaren 2an  
**XVI. urteurrena**

---

Udaberriak bizia ekarri zure askatasun modua gogoratzen du zure ametsak buruak izanik zure indarra gurea egiten dugu.




ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Javier  
IGOA OTXOTEKO**

Lesakan, 2016ko apirilaren 2an  
**II. urteurrena**

Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gainetik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin.



ETXEKOAK


OROIGARRIA

**Juan Bautista  
URROZ EZKURRA**

Beran, 2010eko martxoaren 20an  
**VIII. urteurrena**

Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko.

Emaztea, seme-alabak, bilobak eta familia



Bere aldeko meza martxoaren 25ean egingen da, 12:30ean San Esteban elizan.

OROIGARRIA

**Fernando  
MANSITO CABALLERO**

Ezustean joan zaren arren beti gure ondoan segituko duzu. Zure bizitzaren zati eder bat euskarak bete du, beti prest baitzinen edozein ekitalditan parte-hartzeko. Zure abesti gustukoena beti gogoan edukiko dugu: *Hegoak ebaki banizkio...*

Esker mile egin duzun guziagatik



Baztan, Malerreka eta Bortziritako solaslagunak



Urte osoan 24 orduko zerbitzua

Beilatoki zerbitzua Bortziritan  
baita eskualdeko etxeetan ere

T. 948 05 90 90

OROIGARRIA

**Fernando  
MANSITO CABALLERO**

Munduan barrena ibili ondoren, euskara ikasteko gogoz beteta ailegatu zinen Baztanera, eta kantuekin bete zenituen gure bizitzak. Klaseak ez dira berdinak izanen zu gabe, beti gure artean egonen zara. Izar euskaldun bat piztu da zeruan.



Zure euskaltegiko lagunak. Baztango Suinki euskaltegia



BORTZIRIAK | MALERREKA | BERTIZARANA  
BAZTAN | ZUGARRAMURDI | URDAZUBI

**24 ORDU | 365 EGUN**  
**948 48 95 50**  
info@funerariabaztanbidasoa.com

BAZTAN  
BIDASOA  
Ehorzeta Zerbitzuak

**ESKUALDEAN ETXEKO ZERBITZUA**



*Betiko taldea zu laguntzeka*

BERAn San Jose Beilatokian  
Laister, tanatorio berriak **DONEZTEBE** eta **ELIZONDON**

tanatorios  
**IRACHE**

24 ORDUKO TELEFONOA  
**948 637 404**

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)  
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA  
.....  
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

# PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL

PELLOZIRI



Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)



## GANBARAN

Maripurtzil eta Peloziri zakurraren bila dabilta, gaur bainatu beharra duelako. Pinttok, ordea, ez ditu xaboaia eta ura batere gogoko eta alde egin die. Ganbaran gorde ote da? Zer uste duzu zuk?



Pintto



- Ea ondoko elementuok ere aurkitzen dituzun.



kapela



gutuna



margo  
potoa

**INTERNETEN ERE BAI !** <http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)





# finala

Martxoak 24, LARUNBATA  
Lekunberri, Toki-Alai sagardotegia  
17:30ean

**ADDAMS FAMILIA**  
(BAZTAN-MALERREKA)  
**ALDATZEA KOMENI**  
(LEITZA)  
**UNIBERTSOLARIAK**  
(LESAKA)

Sarrerak salgai [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean

informazio osoa  
[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

Antolatzailea  laguntzailea 

**BARDOAK** 2018  
nafarroako taldekako bertso ekimena

**BERAN, AZKENEKO  
3 ETXEBIZITZA  
SALGAI!!!**

**155.500€tik hasita!**

**T. 696 94 16 89**

**BEHEKO SOLAIRUAN**  
2 etxebizitza:  
lorategia, garajea  
eta trastelekuarekin.  
Bat 2 logelarekin eta  
bertzea 3 logelarekin



**LEHENENGO SOLAIRUAN**  
etxebizitza bat:  
3 logela, garajea  
eta trastelekuarekin



A kalifikazio energetiko haundiarena, zoru bero-emailea, berogailu individuala, eguzki-panelak, isolamendu termiko eta akustiko bikaina, ardatz aldagarriko leihoak, bi bainu-gela, igogailua, fluxu bikoitzeko aireztatzea ...

# Agerran bizi!!!




**Ttapi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA  
Koskontako bidea, 7 LESAKA  
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57  
info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**705** aleko  
irabazleak >



**ZOZKETAK**

**Baztan Abentura Park - 2 tiket**  
Aitor Zabaleta Alduntzin | LEITZA  
**Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera**  
Bernardo Iparragirre Lukanbio | LEKUNBERRI  
**Donostiako aquariuma - 2 sarrera**  
Juan Felipe Vicente Irigoien | IRURITA  
**Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera**  
Koro Irazoki Arburua | BERA  
**Lesaka Kiroldegia - 2 sarrera**  
M<sup>a</sup> Jose Iribarren Iribarren | DONEZTEBE  
**La Rhune - 2 sarrera**  
Inaxio Barberena Iribarnegarai | ERRATZU  
**Baga-Biga - CD bat**  
Severino Retegi Iturbide | IGANTZI  
**Baga-Biga - CD bat**  
Imanol Juanena Arozena | URROTZ

Lote bat



**MARTIKO**  
[www.martiko.com](http://www.martiko.com)

2 sarrera



**IRRISARRI LAND**  
[www.irrisarriland.com](http://www.irrisarriland.com)

2 sarrera



**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**  
[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es)



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

**BUATXABAL**  
[www.buatxabal.com](http://www.buatxabal.com)



Kamiseta bat

**OKILLE TAILERRA**  
[www.okilletailerraesp.blogspot.com](http://www.okilletailerraesp.blogspot.com)



Eguzkilore bat

**LI  
BU  
RU  
AK**



**Akats bat lehenengo lerroan**  
**Pikondoaren balada**

**elkar**  
[www.elkar.eus](http://www.elkar.eus)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.elkar.eus](http://www.elkar.eus)



[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)